

TOKIKOM

karkara

Orioko eta Aiako aldizkaria
2013ko urriaren 11
342. zenbakia. 25. urtea



Puertas anaien azken palada

38 eta 34 urterekin arraun egiteari lagatzea erabaki dute Asierrek eta Gorkak. 20 urte baino gehiago arraunean, 8 Kontxako bandera, eta bi kolore.

05

Orioko kontuak
goiko Kaleko festak

08

Kirol Elkarrizketa
Agirre eta Del Olmo

10

Aiako Elkarrizketa
Rosa Aramendi

21

Inketa
Arrantzale kaleko tunelak

Obrok, proiektuak, erreformak, enehabilitazioak, kostuenak, lizentziak.

XS

arkitektura

borja agirresarobe lopetegi 635 73 17 22

Alustiza Autobusak

Alustiza Bidaiak S.L.



Autobus litera eta
16, 19, 25 eta 56 plazakoak.
Bidaiatu eta ezkontzetara edo sagardotegira joateko.

Tel: 943 13 28 93 / 83 08 80 • Mugikorra: 656 78 30 01 • 656 78 29 99

LUXARBE

igeltseritza

Igeltseritza orokorra, denetarik egiten dugu.

Presupuestoak eskatu konpromisorik gabe

Lan txukuna eta merkea

Tfnoak: 943 83 59 00



AIRIATZA

modas

Eusko Gudariak, 7 • Tel./Fax: 943 83 10 88 • 20810 ORIO

TANATORIO ZARAUZ

EUROFUNERARIAS TALDEA

Hileta eta zerbitzu orokorrak

- Donostia eta probintziako ospitaleetan
- Aldioroko zerbitzua
- Belatorio gelak
- Koroiak, eskelak, tramitazioak...

Araba kalea, 35 Zarauz

Tel: 943 89 49 37 / Fax: 943 89 49 43
e-mail: harraspil@harraspil.net

tel/fax: 943 89 00 69

Bizkaia kalea, 4 • 20800 ZARAUZ



URBIDE

ITURGINTZA, BEROGINTZA
GASA BAINU ERAKUSKETA

Presupuestoak konpromisorik gabe

URANGA

burdindegia

Opari, menaje eta erremintak

fer.uranga@euskalnet.net

Telefax: 943 8312 36 Eusko Gudari, 5

HAUR ETA HELPUENTZAKO JANTZIAK



ROSA

GARBIÑE ARRILLAGA

ARIZAGA KALEA, 2 • TEL: 943 13 19 43

10% DESKONTUA FAMILIA UGARIENTZAT

PERTSIANAK

AKO MAZ



Aluminio, PVC
Venezianak
Motorrak...

Tel: 943 13 29 01 • Mugikorra: 600 70 52 27

ARKAITZ

Taberna

Pintxoak,
plater konbinaluak
eta ogilarleko mundialak

ABESTARI KALEA, 4

Tel: 943 83 16 57



MIRANDA

tarima, ate, leiho, eskalera...
behar diren arak lanak
egingo dituztegu

Urdaneta bidea, 1 • 609 42 32 70 • ZARAUZ

azkue

karrozeria



Ubegun industrialdea, 7 20809 Aia-Orio

Tf/fax: 943 83 51 86 Carroceriasazkue@hotmail.com

ile apaindegia

MARIJO



Neska eta mutilentzat

Eusko Gudari, 8 - bajo
Tel: 943 13 47 29
ORIO

bodegasERRASTI, S. L.



Eskualderako banatzailea
Zudugarai, Getariako txakolina
Ilagares, ardo gorri nafarra
Bodegas Gailur: Señorío de Laurgain
Gailur eta Ardandegi,
Arabar Errioxako ardoak

Eusko Gudari, 46 ORIO • 943 83 03 86 / 83 59 52 • E-posta: bodegaserrasti@euskalnet.net



Igo zaitetz haize berrietara!

Galerria I

943890416-677149934
galerrria.orio@hotmail.com

Emakume baten oroitzapenen zakua

1

Oroitzapenen zakua erakusteko uea: Baserri zahar handi baten famili xume xumea, eliza eta erretoa, errespetua gainea, *Ni pekatarien* hori itsatsirikan soinea. Elkarren babesak betez diru gutxin hutsunea. Zortzi senide zaharrago ta azkeneko umea... Zoriontsu ahaztu gabe zarella emakumea.

2

Hamalau urte zitula neskame lanetan hasi nesken jakin beharra zen obeditzea lehenbizi gau eta egun langile diru gutxi irabazi hala ere bizitzarako nonbait, ondo zuten hezi. Behar beharrezkoa zen plantxan ta josten ikasi ezertan ez zekiela etsita zenean kasi... Nobioa egin eta indulto irabazi!

3

Sei urtez nobioakin eta elizaz ezkondu estreinatu beharko zen hainbeste zuena zaindu! Ordura arteko beldurrak nola bat-batean kendu? Baina hogeita bat urtek askotako ematen du! Bikote idilikoa nahiz pixkat behar zuzendu ume bat, bi eta hiru painala eta ukendu... Exekoandre izan arren neskametza ematen du!

4

Urteak doaz aurrera eta gorputza baldarra aitzaiki onak: semeak, etxea edo senarra. Aldaketa berri batek ematen dio dardarra geroz eta hurrerago bakardadearen marra... Bera maitatzea zeukan itxuraz ahaztu xamarra nahiz oraindik entzuten zun bihotz taupaden indarra ohartu da gozatzea dela falta dun bakarra.

5

Berrogei eta hamabost urte kunplituta jada nahiz sinisteko zaila den da aldaketa bolada beti hain lotsati eta orain ezer ez da traba ezagutzen zuten denak harrিতා ditu laga. Nahiz ez izan senidea, senarra edo alaba: *Errikotxerako zita* Ainhoaren* mezua da... Bertsoak sentimentun bat nahastu dio behar bada.

342

karkara

Orioko eta Aiako aldizkaria

Eusko Gudari, 26
20810 Orio
943 831 527
karkara@karkara.com

Editorea
Karkara taldea
kultur elkarte

Zuzendaria
Lore Berasaluze

Erredakzio taldea
Irati Agirreazaldeggi,
Onintza Aiestaran,
Iñigo Gaiton,
Iker Gurrutxaga, Eli Lasa
eta Idurre Lizarralde

Publizitatea
Iban Egiguren

Publizitatearen diseinua
Iban Egiguren

Testuen zuzenketa
Elizabete Manterola
eta Rikardo Uzquidun

Azaleko argazkia
Joxemari Olasagasti

Ale honetako laguntzaileak
Maider Arrillaga,
Joxean Manterola *Zatain*
eta Iker Urdangarin

Laguntzaileak
Zigor Esoain
eta Iñaki Iturain

Diseinua
Karkara taldea

Banatzaileak
Narrea Etxeberria
eta Esti Uranga (Orioko)
Eli Irureta (Aia)

Inprimategia
Gertu Koop. E. (Oñati)
Lege gordailua SS-346/90
ISSN 1132-1105
Tirada 3200 ale

KARKARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien edota iritzien erantzukizunik. KARKARAN argitaratutakoa berremen daiteke, osorik edo zatika, baldin eta iturria aipatzen bada.



KARKARA

PUBLIZITATE PREZIOAK

Iragarkia alero jarrita

Modulu bat	12,00 €
Bi modulu	24,00 €
Hiru modulu	36,00 €
Lau modulu	48,00 €
Sei modulu	72,00 €
Zortzi modulu	96,00 €
Orrialde erdia	120,00 €
Orrialde osoa	204,00 €

Iragarkia behin jarrita

Modulu bat	16,00 €
Bi modulu	31,00 €
Hiru modulu	47,00 €
Lau modulu	64,00 €
Sei modulu	95,00 €
Zortzi modulu	127,00 €
Orrialde erdia	174,00 €
Orrialde osoa	306,00 €

Publizitatea kontratatzeko Iban Egigurenekin hitz egin (688 859 682 edo karkara@karkara.com) Prezio hauei BEZa gehituko zaie

LAGUNTZAILEAK



EUSKO JAURLARITZA

Kultura Sailak
diruz lagundutako
hedabidea

Gipuzkoako adinekoen aldeko manifestua:

2013ko apirilaren 24ko bilkuran, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Adineko Pertsonen Kontseiluak, manifestuaren dokumentua onartu zuen.

Aipatzekoa deritzot, nahiz eta nik neuk parte hartzen nuen komisio batek bultzatua izan den, dokumentu oso ederra eta mamitsua dela. Izan ere, denok dakigun legez, paper gainean idatzi ostean, ez da inongo kezarik entzuten eta gainera, paper gainean badakigu edozer idatz daitekeela; erraz gainera –gero onartu bai/ez aukerarekin–.

Hiru izango lirakeke manifestu honek bere baitan hartzen dituen betebeharrak: alde batetik, gogoeta gai izatea; bestetik, gizarteari ideia berriak aurkeztea eta azkenik, herritar guztioi bizitzaren azken urteetan zahartzaro eroso nahiz duina izateko aukera emango dizkiguten aldaketak bideratzea.

Dokumentuak, bere horretan, hiru zati ditu: oinarriak, adinekoen eskubideak eta betebeharrak eta, gomendioak. Mila ideia bururatzen zaizkit zati horietako bakoitzarekin egin daitezkeenak; hala nola, esan dezaket zati bakoitzak bide emango lukeela, KARKARA bezalako aldizkari batean kolaborazio luzeak egiteko.

Baina oraingoz, ez da hori nire helburua; idatzi honekin, dokumentua sortua dagoela eta edozeinek irakur dezakeela adierazi nahiko nuke; ez dokumentua jakitera eman soilik, jendea eta batez ere, adinean aurrera doazen pertsonak, irakurtzera bultzatu. Hala eta guztiz ere, irakurtzen ez duen pertsona ororentzat irakurketa positibo bat egite aldera, ona izango litzateke konturatzea, bizi garen gizarte honi ekarpen gehien egin dizkiogunak adineko pertsonak garela; baina erraz, oso erraz –gizarte lehiakor batean bizi garelako– diskriminatuak izan gaitzkeela. Gizartea krisi global batean sartua dago eta baita gure sektorea ere. Gu geu ez bagara saiatzeng gurea dena defendatzen, orain arte Ongizate Estatuen inguruan lorturiko dena, arriskuan egon daitekeela aditzera eman nahi dut.

Badira elkarteak, badira pertsonak... bere denbora librearen zati bat arazo bihur daitekeen horri aurre egiteko eskaintzen ari direnak. Nik neuk parte hartzen dut horietako batean eta arazoei aurre egiteaz gain, gehien mugitzen edo motibatzen gaituena gizarteari gure sektoreak eman dezakeen guztia jakinaraztea da; ziur izanik, hori guztia asko dela. Gure sektoretik, daukagun denbora librearen zati bat gizartearen esku jarriko bagenu, gizarte osoari izugarritzko

ekarpenak egingo genizkioke.

Harremanetan jarriak gaude Diputazio eta Gobernuarekin eta orain, gure helburu nagusia emakumeek eta gazteek duten erara, Adinekoen Institutu edo hala moduzko bat sortzea izango litzateke, herri honen, Euskal Herriaren estruktura politikoan. ■ **A. Campos.**

Zer bilatzen zuten?

Hori da irailaren 30ean Guardia Zibilak aurrera eramandako polizia operazioaren ondoren behin eta berriz gure buruei egiten diegun galdera. Guk, Herri-rako kideok, argi ditugu erantzunak.

Lehenik eta behin, Euskal Preso eta Iheslarien eskubideen aldeko lana kriminalizatzea. Noiz eta Estrasburgoko



Oinezkoentzako bideak kakaz beteta

Irakurle batzuk idatzi digute esanez, oso ondo iruditzen zaiela tren geltokia eta Ubegungo industriagunea lotzen dituen oinezkoen bidetik zaldiz ibiltzea, *ondo ez ezik primeran eta ez dago inongo arazorik, zilegi deritzogu eta oso polita gainera.* Baina zakurren kakak jaso egin behar diren bezalaxe, zaldienak ere berdin-berdin jaso beharko lirakekeela uste dute. *Are gehiago, agian, handiagoak izanik pasaera galarazteraino irits baitaitezke ia-ia* -argazkietan ikus daitezkeen moduan-. *Berriro diogu, primeran iruditzen zaigu hortik pasatzea, baina mese-dez, kakak jaso.*

Epaitegia Parot dotrinari buruzko epaia ematekotan denean. Presoei onurak aplikatzeko moduaren aldaketa ekarri zuen aipatutako doktrinak, hainbat eta hainbat bizi arteko kartzelara kondentatuz, de facto. Doktrina honen aurkako lana izan da, hain zuzen ere, sakabana-keta politikaren eta gaixo larriak kartzelan mantentzearen aurkakoarekin batera, Herrira mugimenduaren lan ildo nagusienetako bat. Ez da kasualitatea, beraz, data konkretu hauetan Herriraren aurkako polizia operazio hau.

Eta bigarrenik, euskal gizartea zati-tzea. Herrirak urte eta erdi pasatxo honetan lortu duena ezerezean uztea alegia. Herrirak lortu du Euskal Preso eta Iheslarien giza eskubideen defentsan euskal gizartearen gehiengo zabala artikulatzea. Horren adibide dira Bilboko manifestazio nazionalak eta, batez ere, polizia operazioaren ostean euskal eragile askok eta askotarikok emandako erantzun bateratua. Eragile guzti horiekin eta nahi izan duten norbanako guztiekin izan ditu harremanak Herrirak. Horixe izan da Herriraren lan tresna bakarra, harremanak. Argi dugu polizia operazio honen helburu nagusia preso eta iheslarien eskubide urraketa sistematikoa gutxi batzuen arazo izatera pasa zedin zela, berriz ere.

Zentzu honetan ez dugu ulertzen orioko EAJren jarrera, harritu eta mindu egin gintuen hilaren 4an ezohiko Udalbatzara ez agertzeko hartu zuen erabakiak, are gehiago jarritako aitzakiek. Herriraren aurkako operazioak ez omen du Oriorekin zerikusirik. Orio Euskal Herriaren parte da eta presoen eskubide urraketa egunero bizi duen herri bat. 2 preso politiko ditugu ehunka kilometrotara sakabanatuta eta hamarnaka dira etxeokak edo lagunak ikusteko asteburua errepedean pasatzen dutenak.

Zuzenean eragiten dio Oriori preso eta iheslarien auziak eta zuzenean eragiten Herriraren aurkako operazioak ere. Guardia zibilak ez ditu zumaiar bat, gas-teitzar bat, azpeitiar bat, gernikar bat... atxilotu, 18 euskal herritar atxilotu ditu. Orion ere badira Herriran lanean ari direnak, hemendik aurrera klandestinitatean jardun beharko dutenak. Guri hain gertutik jotzen gaituen eraso hau oriotarraz arazo ez dela esateak baino min gehiago ematen digu ordea, EAJren erabakiaren ondorioz Orioko Udalbatzak eman zuen irudiak: Preso eta Iheslarien eskubideen urraketa gutxi batzuen arazo bihurtua. Guardia Zibilak bete du bere helburuetako bat. Bestea, zin egi-ten dugu, ez du inoiz lortuko.

■ **Orioko Herrira**



Aurten ere azoka izango da Pilliku inguruan. KARKARA

Hiru eguneko festak hartuko du Goiko Kale urriaren 11tik 13ra

Eskaintza zabala izango du 2013ko Goiko Kaleko festa programak. Pintxo txikiteoa, musika, haurrentzako ikuskizunak, azoka, jokoak... Guztira hamasei ekitaldi jarri dituzte festa batzordekoek

Kalera, kalera, trapuak saltzera, nikeros-ten ditut modu onean... Ez txupinazorik ezta bestelako zaratarik ere. Doinu goxoz, kantari, ematen diete hasiera festei Goiko Kalen.

Aurten ere lan handia egin dute festa batzordekoek eta egitarau txukuna osatu dute guztion gozamenerako. Hamasei ekitaldi izango dira 48 ordu baino gutxiagoan.

Urriaren 11n, ostiralarekin, hasiko dituzte festak, arratsaldeko 17:30ean, buruhandiek. Txikientzako aukera zabala izango da asteburuan. Ostiralean buruhandiez gainera, Eriz magoaren emanaldia izango da, eta, larunbatean, krono-igoera mantsoa, zinta karrera, aurpegi margotzea eta ipuin kontaketa.

Musika eskaintza ere zabala izango da. Festen hasiera ematen dion kantuaren atzetik, *Ekin* talde oriotarraren kontzertua izango da. Larunbaterako, berriz, *La jodedera* taldea izango da kubatar doinuekin. Festak ere kantari bukatuko dituzte, igande eguerdiko kantu-jirarekin.

Denok aldapan gora!

GOIKO KALEKO FESTA BATZORDEA

B adator aurtengoan ere. Ostirala-ekin lehertuko da festa. Trapu zaharrek haize berria ekarriko dute. Kolorez jantziko dugu berriro ere herriko kale nagusia.

Aurtengoan festak kalea hartuko du. Goiko Kaleko bihotzean, Pilliku plazan, izango da festaren erdigunea, bizipozaren saltsa. Ez da izango asperetzeko paradarik. Osatu baitugu beheko kalea husteko moduko egitarau oparoa. Bildu gaitezen koska bat gorago.

Zabal dadila goiko kaleko festen izpiritua. Elkarrengana biltzeko nahia. Bakoitzak bere apurra jarriz ondo pasatzeko gogoia. Denok egina, guztion gozagarri. Altzaporr, etorri aldapan gora!

EGITARAUA

Urriak 11, ostirala

17:30ean: Buruhandiak

18:30ean: Eriz magoa

19:30ean: Pintxo-txikiteoa

20:00etan: *Atera trapuak* festen hasierako ekitaldia eta *Ekin* taldearen kontzertua

22:00etan: Bingo azkarra Goiko Kaleko tabernan

22:30ean: Orioko Mus Txapelketa. Izen ematea 22:00etan, Aldapan

Urriak 12, larunbata

10:00etan: Barazki, jantzi, pitxi eta bestelako gauzen azoka

16:00etan: Haur eta gazteen krono-igoera mantsoa eta Zinta karrera eta aurpegi margotzea

17:30ean: Ipuin kontaketa haurrentzat Ibai Esoainen eskutik

Jarraian: Txokolate-jana

Ondoren: Toka txapelketa

19:30ean: Pintxo-txikiteoa

20:30ean: *La jodedera* taldearen kontzertua

Urriak 13

11:00etan: Txistularien diana

12:00etan: Kantu-jira *Benta Zaharreko Mutiko Alaiak* taldearekin

12:30ean: Patata tortilla lehiaketa - tortillak jasotzeko azken ordua-

Hizkuntza minorizatuen gaineko mahai-ingurua urriaren 24rako

Garabide elkarteak eta Orioko Udalak hitzarmen bat sinatuko dute hilabete honetan, Hego Amerikako hainbat hizkuntza minorizatu biziberritzeko proiektu aurrera eramateko asmoarekin



Bi ordur aritu zen hizketan Amonarriz euskarari buruz urriaren 3an eman zuen hitzaldian. KARKARA

Garabidek eta HUEZIK *Jatorrizko Hizkuntzak Biziberritzeko Estrategiak* izeneko aditu titulua jarri dute orain gutxi martxan. Ikasketa horiek egitera Hego Amerikako eta Afrikako hainbat hizkuntza-komunitateren ordezkariak etorri dira Euskal Herrira hilabete batzuk pasatzera.

Hori aprobetxatuz, duela bost urte bezala hizkuntza minorizatuen gaineko mahai-ingurua antolatu du Orioko Udalak urriaren 24ean, arratsaldeko 19:00etan, Salatxo Aretoan. Bertan haien herrialdeetako esperientziak trukatu eta kontatuko dituzte. Horrez gainera, Garabidek eta Orioko Udalak aspaldi egitea erabaki zen hitzarmena sinatuko dute. Hala, Orioko Udalak 5.000 euroko diru-laguntza emango du Garabidek Hego Amerikan dauzkan hainbat proiektu gauzatu ahal izateko. Proiektu horiek guztiek hizkuntza minorizatuak biziberritzea dute helburu.

Amonarriz hitzaldia

Pasa den urriaren 3an Kike Amonarriz *XXI. mendeko oriotar euskaldunak: nola aldatu(ko) diren gauzak, kamarada!* hitzaldia izan zen Salatxo aretoan.

Hitzaldia ia bi orduko iraupena izan zuen eta euskararen eboluzioaz, kalitateaz eta euskaldunok euskarara etorri nahi dutenekin izaten ditugun hankasartzeak izan zituen hizketagai besteak beste. Jabier Zabaletak *Euskaraz bizibizi* blogean egin du laburpena eta KARKARAK audioa igo du sarera. Zabaletaren laburpena irakurtzeko, argazkian dagoen QR kodea baliatuz, mugikorrera edo tabletetara deskargatu daiteke.

LABUR

Mugikortasuna

Autobus zerbitzari buruzko bilera

Erabiltzaileek autobus zerbitzuari buruz pentsatzen dutena jakiteko, Gipuzkoako Foru Aldundiak martxan jarri duen *Herri-tarrekin martxan* kanpainaren barruan, bilera izango da Orion, urriaren 16an, asteazkenarekin, iluntzeko 19:00etan, Kultur Etxean. Bilerak irekia izango da eta autobus zerbitzua hobetzea da kanpainaren helburua. Informazio gehiago, www.garraioahobetzen.net helbidean.

Euskara

Karkarak ahotza Euskadi Irratian

Euskadi Irratiak eta TOKIKOMek lankidetzara hitzarmena sinatu zuten urriaren 2an. Bi aldeek atsegin handiz hartu duten lankidetzaren asmoa, euskal esparru komunikatiboa garatzea eta trinkotzea da. Elkarlan honetan lehen urratsa eman dute dagoeneko: Euskadi Irratiko arratsaldeetako Mezularia albistegian TOKIKOMen biltzen diren hedabideetako kazetariekin, astean behin, herrietako informazioa jorratzen da. KARKARA izan zen lehendabiziko aldiz irailaren 23an, eta, datorren agerpena azaroaren 4an egin dugu.

Kultura

Julen Alonso txapeldun Artadin

Une gozoa ari dira pasatzen Julen Alonso eta Eneritz Aulestia trikitilariak. Zarauzko txapelketa garrantzitsua irabazi eta gero, Zumaiako Artadi auzoan San Migel jailetan ere txapeldun izan dira. Txapela lortzeko bidean, ordea, txapelketa gehiengotan jaun eta jabe izaten diren Itsaso eta Irune Elizagoien ere baziren. Baina Etxalarko ahizpek ez zuten beren mailarik onena erakutsi Artadin. Alonso, berriz, txukun aritu zen, oso fin. Gauzak horrela, hiru puntuko aldearekin, irabazi zuten Alonsok eta Aulestia zarauztarrak.



Hassan II.aren Casablancako meskita baino ezin izan dute bisitatu Marokora egin duten bidaietan. ZAHARREN BABES LEKUA

Zaharren Babes Lekukoak Marokon: sekula egin duten bidaiarik latzena

Irudi gogorak. Pobrezia eta aberastasuna. Europara alde egin nahian dabilzan herritarrak. Esker ona eta abegitasuna. Hori guztia bertatik bertara ezagutzeko aukera izan dute Orioko edadetuek

Iraila bukaeran Marokora joan ziren Orioko Zaharren Babeslekutik. Beste urteetako esperientzia gozorik ez dute izan, ordea, aurtengoan. Gazitik askoz ere gehiago izan du Afrikako lurretan egin duten egonaldiak.

Torremolinosen –Malaga– hasi zuten bidaia eta Algecirasen itsasontzia hartuta pasa ziren Marokora. Lehen egunak Fezen pasa zituzten. Bidaiaren hasiera izateko benetako miseria eta irudi latzak ikusi genituen bertan. Orain dela 50 urte hemen bizi ginen bezalako egoera ikusiko genuela esan ziguten, baina askoz txarragoa izan zen, kontatu digu Txomin Iribar Babeslekuko presidentek.

Fezeko kaleetan lau gida izan zituzten: euskaldun bat, marokoa bat eta bi laguntzaile. Laguntzaileen zereginagarbia zen: egoera gogorrena bizi zuten auzo eta kaleetara ez desbideratzea, bestela ere egoera nahiko gogorra zelako.

Fezen larrugintzan aritzen ziren auzo batean izan ginen –jarraitu du Iri-

barrek–. Benetan usain fuertea sumatzen zen, eta hasarantz eman zizkiguten menda hostoak usain horri aurre egiteko zirela konturatu ginen aurrerago. Larruak tindatzen eta ibiltzen ziren mutil gazteak oinak uretan sartuta. Guk horrelako irudiak noizbait ikusi baditugu, zinemari izango zen.

Marrakexen askoz hobeto ibili ziren. Pobre xamarra iruditu arren plaza handiak eta jendez gainezka zirela gogoratzen du Iribarrek. Kategoriako hoteletan izan ziren, 4-5 izarrekoetan, beti ere egonaldia atsegina izango zela ziurtatuz.

Iribarrek kontatu digunez sekulako afaria eta sabel dantza ikuskizunaz gozatu zuten Marrakexen. Merkatu plaza sekulakoa da, hain handirik ez dut ikusi sekula. Etxe zahar bat bisitatzeko aukera ere izan genuen. Han tea, ezti, mantekila eta ogia eman zizkiguten. Sei familia bizi ziren etxe hartan, pobrezian, eta hala ere gu oso ongi hartu gintuzten. Ateratzerakoan propina utzi genien eta nega-

rez, guztiz unkituta gelditu ziren.

Casablancan izan zuten meskita bisitatzeko aukera bakarra. Berria zen, eta ordainduta bazen ere, sartzeko aukera izan zuten eta haren edertasunarekin txundituta geratu ziren. Toki ederrean omen zegoen, itsasoari begira.

Hasiera eta bukaera gogorak

Bidaiaren bukaera, ordea, oso gogorra izan zen berriz ere, hasiera bezala. Tangerran izan ziren eta semaforoetan, autobusa geldik zegoen uneetan, 12tik 18 urtera bitarteko umeak autobus azpira sartu eta zintzilik jartzen ikusi zituzten. Haien desio bakarra, Europara pasatzea.

Gure artean larritasuna bizi izan genuen. Beste gidari batek aparkaleku pribatu batetara eraman gintuen, baina han ere haur bat aurrean... Mugara iritsi ginenean poliziek eskanerra erabili zuten eta erregaiaren depositu gainean bi mutiko, 13 eta 17 urtekoak, aurkitu zituen. Saiakera asko egindakoak, bukatu du Iribarrek.

Ez dituzte berehalakoan ahaztuko Marokorako bidaia eta han izandako bizipenak Orioko Zaharren Babeslekuko bidaiariek.



Agirre eta Del Olmoren elkarrizketa osorik entzun nahi izanez gero, beheko QR kodea mugikorrarekin edo tabletarekin irakurrita nahikoa da. KARKARA

“Bigarren B mailan dago gure tokia eta harro gaude horretaz”

Joseba Agirre eta Joseba Del Olmo

Laudio futbol taldeko jokalaria



Ez da askotan gertatzen Orioko edo Aiako bi futbol jokalaria kanpoan batean aritzea jokatzeko. Iaz Iker Torrek eta losu Esnaolak Nojan izan zuten horretarako aukera. Aurten Agirrek eta Del Olmok Laudion. Puntan ibilitako bi jokalaria dira biak ala biak.

IKER GURRUTXAGA

Ibilbide oparoko jokalaria dira Joseba Agirre - Orio, 1977- eta Joseba Del Olmo - Barakaldo, 1981-. Realarekin eta Athleticekin lehenengo mailan jokatu-takoak dira. Gaur zuri-gorritz jokatzeko dute, baina ez Gipuzkoan ezta Bizkaian ere: Araban dute taldea. Beren egunero-koaz eta ibilbideaz aritu gara hizketan. **Nola jakin zenuten elkarrekin egongo zinetela aurten?**

Del Olmo: Berak esan zidan. Nire anaiak ere bertan jokatzeko zuten eta ia erabakita neukala, Josebak konbentzitu ninduen.

Agirre: Gero berak katxe bat dauka. D.O.: Neukan.

A: Dauka. Eta Bigarren B mailako talde gehienek nahi zutela. Entrenatzaileak ezagutzen zuten, Sestaon ibili zen garaitik eta berarekin egotea nahi zuten. Hori, Orion bizi zela, anaiaren kontua... bada han bukatu du.

Berezia izango da, ezta?

D.O.: Lehenengo aldiz gertatzen zaidana da hau. Irunen jokatzeko aukera nuen, eta Laudiora joan naiz, nahiz eta askoz urrunago egon. Zergatik? Bada berarekin kotxez joateko eta zuk esan duzun magia berez horregatik. Herrikoak

gara. Beno ni ez, baina dagoeneko oriotarra banintz bezala sentitzen naiz.

A: Ni baino oriotarrago seguro...

D.O.: Parekoak. Pozten naiz eta erabaki ona hartu dudalakoan nago.

A: Lehendik ere ezagutzen genuen elkar. Baina eguneroko tratua, biderako beste sostengu bat ere bada... Lehen donostiar batekin joaten nintzen eta orain hirugarrena da. Egutero bi ordu errepidean gogorak egiten dira, eta halako mutil jator batek asko goxatzen du hori. **Iaz biok igoera bana ezagutu zenuten, bakoitzak hiru ditu bere gain... nolakoak dira une horiek?**

A: Nik hiru jaitsiera ere baditut... Nire ustez mailaz igotzea jokalaria batek bere ibilbidean gutxienez behin bizi beharreko zerbait dela iruditzen zait. Futbolearen normalean jaitsierak, lesioak... izaten dira. eta ez da horrekin bakarrik geratu behar.

D.O.: Gainera igoera horiek berdin du zein mailatan diren. Nik hiru kategoriatan ezagutu ditut: hirugarrenetik bigarren b mailara, bigarren b mailatik bigarrena eta bigarrenetik lehen mailara. Sentitzen duzuna gauza bera da, berdin du zein mailatan zauden. Taldean sortzen den poztasuna eta adiskidetasuna bera da. Futbolearen bizi daiteken momenturik handiena da.

Biok ezagutu dituzue kanpoko taldeak... desberdina al da euskal futbolarekiko?

D.O.: Ni berandu joan nintzen Alicanterra. 27 urterekin joan nintzen bertara eta nik aurretik hemengo hainbat taldetan

esperientzia izan nuen. Futbola desberdin ikusten da maila horietan. Euskal Herrian hobbie bat bezala ikusten zen gehiago, baina Espainian beste modu batetara ikusten dute. Futbolaren munduan zerbait badirela, benetako profesionalak direla usten dute. Han ia inork ez zuen ikasten, edo lanik egiten. Hemen bestelakoa da. Ni Alicanten 2. mailan egon nintzen, eta desberdina da, baina gazteetan ikusten nuen gabezia hori. Ni ingenieritza ikasten ari nintzen eta taldekide gazteei ikasteko eta esaten nien. Aurpegi arraroarekin begiratzen zidaten...

A: Ni 20 urterekin joan nintzen eta aldaketa handia izan zen. Ume bat nintzen eta Castellon hiriburuko taldera joan nintzen. Bigarren B mailan egon arren, oso profesionala zen. Egunero hiru egunkari gutaz hizketan ari ziren, eta hemen berriz ez. Mundu guztiak ezagutzen zintuen, eta bigarren b maila zen. Orain nire ustez hemengo hangora hurbiltzen ari dela esango nuke. Diru kontua da. Lehen kanpoan zegoen diru guztia eta horregatik joaten ginenez; orain, berriz, kanpotarrak ona datoz jokatzera. Gutxiago ordaintzen duten arren, serioagoak dira ordainketan.

Lehen mailarako saltoa nola izan zen?

D.O.: Niretzat sari bat izan zen. Eboluzio baten ondorioa. Athleticek deitu zidanean, adinagatik eta, ez nuen sekula espero. Urte askotako sakrifizioari saria zela iruditu zitzaidan. Nik aurretik ekonomikak ikasi nituen eta laugarren kurtsoan Erasmus joateko aukerari uko egin nion futbolagatik. Bizkaian Athleticean jokatzea hemen Realean jokatzea beza la da, sekulakoa. Urte horretan futboleant jokatzeari utzi izan banio, pozik geratuko nintzen nire ibilbidearekin.

A: Antzekoa da... Ni 13 urterekin hasi eta 20 urte arte egon nintzen bertan. Hogei minutu jokatu nituen lehen mailan eta ikusi nuen ez zegoela niretzeko tokirik. Entrenatzaile aldaketa eta lesioak tarteko, kanpora joatea erabaki nuen. Baina helburua beteta ikustea bezala izan zen. Ez da edonor iristen eta nik behintzat 20 minutu jokatu nituen. Gehiago jokatuko nituen...

D.O.: Baita nik ere!

A: Baina iritsi egin gara, eta hori bada zerbait. Ez naiz kanpokoaz damutzen. Beste kultura bat, beste jende mota bat...

Goraino iritsi eta gero, berriz atzera egin beharra, gogorra al da?

D.O.: Niretzako ez da gogorra izan. Niri galdetuz gero zein den nire jokalaria maila, Bigarren B mailako jokalaria naizela esango nuke. Nahiz eta lehenengo mailan egin urtebete, bigarren mailan 4 urte... nire maila hau dela uste dut. Bara-

kaldon hasi nintzenean, nire topea zela uste nuen... Baina gero zorzea izan dut eta nahastuta nagoela konturatu naiz. Baina nik beti pentsatuko dut Bigarren B maila dela nire tokia.

A: Diferentziak daude jokalarien artean eta bakoitzak bere tokia du. Batzuetan gora egiteko aukera izaten da, baina han mantentzea oso zaila da. Denboran aurrera eginda maila honetara itzultzen bagara, bada maila honetako jokalaria garelako izango da. Eta horretaz harro nago. Lurreratze gogorra Castellotik Hospitaletarako aldaketa izan zen. Puntako talde bat izatetik azpiegitura gabeko talde batetara joan nintzen. Hor kostatu zitzaidan zerbait aldaketara moldatzea.

“Mailaz igotzea jokalaria batek bere ibilbidean gutxienez behin bizi beharreko zerbait dela iruditzen zait” – Agirre

“Athleticek deitu zidanean, adinagatik eta, ez nuen inondik espero. Urte askotako sakrifizioari saria zela iruditu zitzaidan” – Del Olmo

Taldean funtzio desberdinak dituzue, biak erdian baina bata aurrera begira eta bestea atzea zaintzen.

A: bai, bera erasokorragoa da eta ni defendatzaileagoa.

D.O.: Hori, berak nahi duelako!

Lan zikina Agirreraren kontu orduan. Muttil lasaia ikusten da bada...

D.O.: Zelai barruan ere hala da. Taldeki-de batek partida bukatzean esan zion. *Joseba, partida barruan ere hain lasaia izateko zere egiten duzu? Errieta egiterakoan ere lasaia zara gero!* Despistatu samarra ere bada, bere munduan bizi den horietakoa.

A: Bera ere nire antzekoa da, baina ni baino askoz ere argiagoa da.

Aurten ere Koparekin ametsetan?

D.O.: Guk kopako ametsa nahikoa beteta dugu, baino taldearen ekonomiarako eta gainerako taldekideentzako oso ona da. Iaz Eibarrekin Athletice irabaztea eta Athleticekin kopako finalera iristea... handiak izan ziren. Nik pertsonalki antsietate hori ez dut.

A: Nik Bernabeun Madril kaleratu nuen. Baina *Championseko* talde baten aurka jokatzeak asko betetzen gaitu beti. Hala ere horrek despistatu egin gaitu eta indarrak ligan jarri behar ditugu.

D.O.: Gu beteranoak gara eta pentsamen-duak ere antzekoak ditugu zentzu horretan.

LABUR

Futbola

Neskek garaipena lehenengoan

Urriaren 6ko asteburuan ekin zioten beren ligari Orioko Futbol Taldeko jubenil-kadete neskek. Bergaran izan zuten estreinakoa lehen jardunaldian atsedena izan eta gero. Sekulako hasiera eman diete denboraldiari, 1-3 irabaztea lortu zuten-eta. Jubenilen Ohorezko mailako mutilen taldea ere oso fin ari da. Hirutik hiru partida irabazi dituzte hasiera honetan eta ez dute golik jaso. Kadete mutilen eta Ohorezko mailako senior gizonen egoera bestelakoa da. Lehen-dabizikoe hiru norgehiagokatan garaipen bat eta bi porrot izan dituzte eta bigarrenek berdinketa bat baino ezin izan dute lortu. Hasiera gazi-goza, beraz, Orioko Futbol Taldearentzat.

Areto futbola

Talde berria martxan

Orioko Mirotzak izenarekin sortu dute areto futboleko talde berria. Gipuzkoako 3. mailan ekin diote lehiaketari, eta, momentuz, bi partida jokatu eta puntu bat eskuratu dute, estreinakoan. Orion jokatuzuten Anoetako taldearen aurka eta 2-2 izan zen emaitza. Kanpoko lehendabizikoa Arrasaten izan zuten eta 8-3 galdu zuten oriotarrek. Datorrena, urriaren 12ko asteburuan jokatuko dute, Orion, Zarautzen kontra.

Saskibaloia

Hirutik bi liga hasieran

Alustiza Autobusak Orioko taldeak bide onetik hasi du denboraldia. Iaz mailaz igotzeko play-offa jokatu eta gero, ildo beretik ekin diote aurten ere. Hiru partidatetik lehendabizikoa galduta, ligako bigarrenak dira, Zarautzen atzetik. Urriaren 19an jokatuko dute datorren norgehiagoka, Orion, arratsaldeko 18:00etan, North Coast Dolphins talde donostiarraren kontra. Emaitzetan berdinduta daude bi taldeak.

Padela

Orioko lehenengo rankinga

Modan dagoen kirola da gurean padela. Hori dela eta, lehendabiziko padel txapelketa luzea antolatu dute, eta izen ematea arrakastatsua izan da. Guztira 46 bikotek eman dute izena eta 10 jardunaldiko liga izango da, urriari hasi eta ekainean bukatuko dena. Txapelketa *ranking* moduan antolatu da. Hala, bikote bakoitzak bere mailako bikoteen aurka jokatuko du partidetan lortzen dituzten emaitzen arabera.



KARKARA

“Emakumerik ez dagoen baserriak normalean ez du funtzionatzen”

Rosa Aramendi

Hitzez Baserriko Emakumeen Elkarteko presidentea

Urriaren 15ean da, Landa Eremuko Emakumeen Nazioarteko Eguna eta Aian bulegoa duen Hitzez elkarteko emakumeek ere ospatuko dute egun hori. Emakume baserritarrentzat osasun, heziketa, parte hartze eta hausnarketarako gunea da Hitzez.

IRATI AGIRREAZALDEGI

Kaletarra izan arren gurasoak baserriarrrak ditu eta mundu hori pixka bat eza gutzen bazuen ere. Urdaneta auzoko Sarobe Berri baserrira ezkondu zenetik bertatik bertara bizi du baserriko lana Rosa Aramendik. Baserriaren eta emakume baserritarrentzen egoeraz hitz egin dugu.

Baserriko egoera asko aldatu al da azken urte hauetan?

Nik lehengo eran ezagutu nuen. Behiak biltzen ziren; esnea kolean eta Gurelesa-

ri banatu; bidea egin berria zen; argi indarririk ez zuteneko garaiak gogoan zitu senarrak; telefonoa ni ezkondu eta gero jarri genuen; etxeko lanak beste modu batera egiten ziren eta traktorea gero erosi genuen. Pentsaera ere lehenago zen eta guk baserrian sartu nahi genuenak talka egiten zuen haienarekin.

Baserri batzuetan lehenago, bestetan geroxeago, baina aldatetak pixkanaka denean izan dira. Baserriak errentan izaten ziren eta erosi egin zituzten; dena eskuz egitetik uzta eta sega makinak etorri ziren; landa-turismoko hasi ziren; or-

denagailua gerokoa da eta internet baserri batzuetan oraindik ez dago, Aian nahiko estaldura ona daukagun arren.

Emakumearen egoera ere aldatu da?

Bai, egokituz doa. Gure amonek dena eskuz egin behar izaten zuten eta orain arropa garbigailuak daude. Baina oraindik emakumea gauza askotan gizonarekin alderatuta atzera dago baserrian. Baserrikoa sakrifizio handia da; gurasoak eta umeak zaintzeaz gain ganadua, so-roa... daude eta emakumeak dena iritsi behar du. Gizonak ere lan egin behar izaten du, baina ez hainbeste zaintzan. Dena dela, oraingo belaunaldiak bizi-moduarekin batera aldatzen ari dira.

Hitzez elkarrekin egoera horiei aurre egiten laguntzen al dizue?

Bai. Lehen maiorzkoa gelditzen zen baserrian gurasoak zaindu eta baserriari eusten. Normalean maiorzkoa gizonetzkoa da eta emakumea gehienetan beste baserri batekoa edo batzuetan kalekoa. Konturatu ginen emakumearentzat hori beste karga bat gehiago zela: beste familia batean eta hango ohituretan sartu beharra; eta integratu ezean horrek kalte egiten dio emakumeari.

Elkartea, hain zuzen ere, hortik abiatu zen. Laguntza talde batera joaten ginen psikologo batekin eta gure arazoak kontatzera ireki. Ohartzen ginen besteek ere antzerako arazoak zeuzkatela eta gure ardurek eragina zutela osasunean ere. Gaur egun, guretzat Hitzez da ongi pasatzeko, hezteko –ikastaro, tailer eta hitzaldiekin–, arazoak hitzez besteekin lagunekin partekatzeko gure eskubideen eta legeen berri izateko toki bat. Esaterako, normalean gizonetzkoak bakarrik kotizatu izan du baserrian eta orain nahi dugu emakumeok ere ahal izatea, horregatik ari gara lege aldetik ere horrelako gauzak lortu nahian. Nortasuna eta gure tokia bilatzen hasi behar dugu. Emakumeok, lehenengo guk eman behar diogu balioa gure buruari gero gizar-teak eta erakundeek baloratu gaitzaten.

Entzun izan dugu emakumerik gabe ez dagoela etorkizunik landa eremuan.

Jendea konturatzen al da horrekin?

Askok uste du baserria gizonen kontua bakarrik dela, baina lanerako garaian emakumeok berdin edo gehiago hartzen dugu parte. Emakumerik ez dagoen baserriak normalean ez du funtzionatzen, beste era batera pentsatzen baititugu gauzak.

Baserritik kanpo gutxi ibiltzen da emakumea?

Dugun denbora librean ez gara etxetik kanpo oporretara joaten edo kafea hartzera lagunekin... Bide bazterrak garbitu, sasiak kendu... beti baserriari ematen

diogu gure denbora. Hala ere, elkar-
tearen bitartez ari gara berdintasu-
naren bila eta nahi dugu emakumeak
etxetik gehiago mugitzea.

**“Emakumeok, lehenengo
guk eman behar diogu
balioa gure buruari gero
gizarteak eta erakundeak
baloratu gaitzaten”**

“Emakumeak beti isilik egon
behar izan du baserrian, eta
gainera, aparte bizi garela
dirudi, baserri mundua
beste mundu bat dela”

Beharrak erakutsita konturatu
gara ez dela ezer gertatzen baserri gi-
rotik pixka bat ateratzeagatik. Etxe-
an egonez gero ez gara kanpokoaz
ohartzen eta ateratzen garenean, el-
kartearen laguntzaz, gauza berriak
ere ikasten ditugu. Hala ere, hartzen
diren ardurekin –umeak zaindu,
etxeko lanak– emakumeoi gehiago
kostatzen zaigu deskonektatzen gi-
zonei baino. Irten behar bagara ere
ongi antolatu behar dugu dena. Hala
ere, badaude Udaletatik laguntzak
egun zehatzetan adinekoak zaintze-
ko edo etxeko lanekin laguntzeko.

Emakumea ez ezik etxekoak ere
ohitu egin behar dira, gutxitan ikusi
baitute emakumea baserritik kanpo-
ra joaten, gainontzekoei men egiten
baizik. Beraz, lagun batzuekin baz-
kaltzera joan behar dugula esan eta
konturatu behar dira ez dugula ezer
txarrik egiten. Gainera, gero etxera
animo gehiagorekin, aurpegi alaia-
goarekin bueltatzen garela.

**Aurki, baina, elkartekook beste
emakume baserritar batzuekin el-
kartzekoak zarete, ezta?**

Urriaren 15ean Emakume baserri-
raren eguna ospatuko da Duranan
eta urriaren 16tik 19ra Emakume
Garapen Sortzaileen I. Biltzarra Zu-
maian. Emakume baserritarren ar-
teko topaketa da eta kanpokoak –
Bolivia, Dominikar Errepublikak, Txi-
le, El Salvador, Puerto Rico eta Bur-
kina Faso– zein egoeran dauden
ikusteko eta elkarrengandik ikasteko
interesgarria izango da guretzat.
Ohituragatik emakumeak beti isilik
egon behar izan du baserrian, eta gai-
nera, aparte bizi garela dirudi, base-
rri mundua beste mundu bat
dela. Emakumeok sinetsi behar dugu
gai garela pausoak emateko eta hori
jendaurrean erakutsi.



Landareak Atsegin Handiz ikastaroan uste baino jende gehiago elkartu zen. ITURRARAN PARKETXEA

Iturraranen erlategiak eta ekintza bereziek arrakasta gehien udan

Parketxetik iaz baino jende gutxiago –3.562– pasatu bada ere aldea
ez da hain handia izan; Agorregiko burdinola eta errotan, berriz,
3.303 lagunek bisitatu dute

Udako oporrak aprobetxatuz Pagoeta
inguruak bisitatzen ditu jendeak eta aurt-
ten uztailetik irailera bitartean Iturra-
ran Parketxetik 3.562 lagun pasatu dira
eta Agorregitik 3.303. *Iaz baino gutxiago
izan arren, krisia eta leku askotan bisitari
kopuruaren jaitsiera nabarmena izan
dela kontuan hartuta, iazko kopurua gu-
txi gorabehera mantentzea lorpena da.*
*Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioa
lan handia egiten ari da, ekintza berri
ematen eta erantzuna jasotzen ari gara.*
*Urtez urte eskaintza zabalagoa eta abe-
ratsagoa da eta bisitariak eskertzen dute,
diote Iturrarandik.*

Ekintza berezietan 672 lagunek hartu
dute parte eta Iturrarangoen esanetan,
*ekintza bat bera ere ez da jende faltagatik
egin gabe gelditu.* Erlategira egindako bi-
sitak, iaz bezala, arrakastatsuak izan di-
rela adierazi digute, baita lehendabiziko
aldiz antolatu diren ekintzak ere. Esate-
rako, irailaren 15ean *Landareak Atsegin
Handiz* bisitarako ez zen lekurik gelditu.

Bisitarien jatorria

Txoko askotatik etorri dira bisitariak:
%40 Euskal Herrikoak –gipuzkoarrak na-
gusi–; %53 Espainiar estatukoak –katalu-
niarren kopurua iaztik zertxobait jaitsi
da eta valentziarra mantendu. Ma-
drilgoetan iaztik igoera nabarmena izan
da, %18tik %30era–; eta %7 atzerri-
arra –42 Belgikatik etorri dira eta Holan-
datik atzerriarren %8a.

Lekuarekin bisitaria oso gustura gel-
ditzen dela esan digute Iturraranen; pai-
saia eta gertutasuna gorai patzen dituzte,
baita ekintza eta bisitetan landutako
gaiak ere. *Pagoetako Parke Naturala txi-
kia, baina aberatsa dela uste dute: parke-
txea; Agorregiko burdinola eta errotak;
erlategi didaktikoa; lorategi botanikoa;
Sarrolako betizuak, pottokak eta oreinak;
ondare naturalaren isla diren Elutsaun-
diko pagadia eta Behor-barrutiko hagi-
na; mendi ibilbide sarea... Gipuzkoako
Parke Naturalik txikiena da, baina abe-
rastasun handiko eremua.*

Kendu esku zikinak Euskal Herritik

Pasa den astean, kontu hauek gaintzera bidean genbiltzala uste genuenean berriro jasan behar izan dugu espainiar inperioaren eraso bortitz bat gehiago. Badakit denok kontu positiboak irakurtzea nahiago genukeela baina badirudi egunkariak horrelako gauzez betetzea komeni zaiela; bes-telako benetako arazoak, hau da, PPren ustelkeria eta zikinkeriak pixka batean bada ere gordean eduki ahal izateko.

Eta nola hartu behar dugu zenbait er-tzainen bortizkeria? Guardia zibilak be-har al du Ertzaintzaren laguntza?. Edo-zein ikus begitik begiratuta ere bihotze-ko mina eragiten dit errealitate honek erakusten duen paisaiak. Badirudi er-tzainen kolektiboak badituela arro ego-

teko motiboak bere taldean Hernaniko Herriraren egoitzaren atarian emaku-me bati burua puskatu zion tiponon *eraginkortasuna eta ausardia* erakusten duten basapiztiak izateaz.

Norbaitek imajinatzen al du burua puskatu zioten emakumea PPko senata-ri bat izan balitz ze hauts harrotuko zi-ren Madril aldean? Ertzain *indartsu* ho-nek naiz muturra estalita eramán, izan-go al zuen PPko senatari bat jotzeko ausardia?

Ez dakit hori zen helburua baina uste dut azken aldi honetan Ertzaintzak oso ondo ordezkatzeko duela guardia zibila, aurrez berdeek eragiten zuten beldurra eta nazkaren nahasketa moduko zerbait pizten duela gaur egun ertzainaren pre-sentziak. Ez dut esan nahi Ertzaintzaren

jantzia daramaten guztiak berdina di-renik baina aspaldian ez diot inori en-tzun Ertzaintzarenaganako komentario positibo bat, nahiz eta hasiera batean euskal herritarroi laguntzeko sortuak zirela sinets arazi ziguten.

Ikusten duzue galdera asko eta eran-tzun gutxi ditudala baina egingo nituzke galdera askoz gehiago.

Noiz hartu behar dugu benetan Eus-kal Herriaren independentziaren kon-tua? Noiz osatuko dugu alderdi abertzaleen arteko dike sendo bat estatu inpe-rialistari aurre egingo diona? Ez dakit baina beldur naiz bere garaian Lorenzo Espinosa historialariak adierazi zuen esaldiak ez ote daukan inoiz baino zen-tzu gehiago: *PNV gabe oso zaila da inde-pendentzia lortzea, PNV-rekin ezinezkoa.*



Txokoak eta jendea

Herriko pilotariak txapeldun

Uda hasieran Lizarrako pilota txapelketa izan zen jokoan hainbat kategorian. Pilotari askok hartu zuen parte eta aipatzekoa da han jo-koan izan ziren argazkiko lau aiarrak nagusitu zirela beren mailan. Goian, Manes Albeniz eta Iñaki Urbieta; eta makurtuta Julen Orbe-gozo eta Unai Albeniz. Zorionak denei!



NESKA ARRAUNLARIAK FESTA GIROAN

Denboraldia bukatu eta atsedenerako denbora hartu ondoren, larunbata, urriak 3, jai eguna izan zen Gipuzkoako emakumezko arraunlarientzat. Zumaia, Hibaika, San Juan, Zarautz, Tolosa eta Orioko 50 arraunlarik egin zuten hitzordua Orion.

Kiroltasuna eta harremana sendotzea, beren esperientziak trukatzeko eta nesken artean arraunaz ez ezik beste hainbat kontutaz ere hitz egitea izan ziren topaketaren helburuak.

Goizean 30 bat lagun elkartu ziren kirol-jolas ekitaldia egiteko. Bazkaritarako gerturatu ziren gainontzeko 20ak eta bazkal ostean kalejira egin zuten Orion barrena trikitixa eta guzti. Kirolaz ez ezik aisialdiaz gozaten ere badakitela erakutsi zuten neska arraunlariek tabernetan egindako bueltaxkan. Eguna jai giroan amaitzeko, Aginagako San Praixku festetara hurbildu ziren

ARGAZKIA ETA INFORMAZIOA: JOXEMARI OLASAGASTI

karkara

Txoko honetan erakusteko moduko argazki zaharren bat baldin badaukazu, ekarri Karkarara eta gustu handiz argitaratuko dugu, zuk ekarritakoa dela jarrita.

**Usurbil Kirol Elkartearen 50 urte
1963-2013**

15€

Dagoeneko salgai dago Usurbilgo eskubaloit taldearen liburua!

50 urteko ibilbidea biltzen duen liburua Usurbilgo Laurok, Lizardi eta Noaua! Kultur Elkartearen eskuratu dezakezu

* 943 36 03 21 eskuratzeko beste aukerak

Logoak: Usurbil Kirol Elkartea, Noaua, Lizardi, and others.



Asier eta Gorka Puertas, Donostiako moila inguruan, 2009ko Donostiako Estropadetako lehen jardunaldian. KARKARA

“Orduko kritikak itsasoak eramaman ditu”

Asier eta Gorka Puertas Orbañanos
Arraunlariak



Orioko Kultur Etxean elkarrizketatu genituen Gorka eta Asier Puertas. IBAN EGIUREN



1991ko Gipuzkoako Batel Liga irabazita, Ibon Etxeberria eta Aitor Erraastirekin. JOXEMARI OLASAGASTI

Lau urteren aldean duten arren, elkarrekin hasi ziren arraunean Asier eta Gorka, duela hogeita hiru urte. Erdiak Orion egin zituzten, herrian, aitaren elkartean, eta beste erdiak, Hondarribian, osaba dagoen klubean. **Elkarrekin lagatzea erabaki dute**, sasoiaren baina nekatuta.

TESTUA: I. AGIRREAZALDEGI ETA R. UZKUDUN
ARGAZKIAK: KARKARA, I. EGIUREN
ETA J.M. OLASAGASTI

Bi anaia elkarrekin arraunean. Orion lehenengo, Hondarribian gero. 1990ean hasi zuten bidea aitaren uberan Asierrek igeriketa utzi eta arraunean, eta Gorkak patroi. Lagatzeko sasoiaren dela erabaki dute, nahiz eta oraindik sasoiaren egon, edo Gorkak esan digun moduan: horregatik kasik, sasoiaren daudelako laga nahi izan dute orain.

20 urtetik gora arraunean. Oraingoan benetan utzi duzue?

Gorka: Bai, garbi. Familia daukagu eta zaindu egin behar da, baita beste gauza batzuk ere: tarteka parrandaren bat; kanpora atera, asteburu batean au-

toa hartu eta Santanderrera joan nahi badut joateko aukera izatea, estropadetarara bada ere, ez egitera, ikustera baizik. Beste kirol batzuk ere gustatzen zaizkigu eta orain denbora izango dugu. Beti zaintzen egon beharrak neke psikologiko eragiten du eta horrek ere eraman gaitu uztera. Une honetan uzteko arrazoi bat izan da fisikoki ondo egon eta beste gauzetarako aukera izatea. Nire beste pasioa surfa da eta surferako sasoiaren nago.

Asier: Maila eman dugu azken urteetan arraunean eta ondo entrenatu eta zainduz gero hori luzatzeko aukera badago, baina burutik nekatuta egotea izan da batik bat uzteko arrazoia. Lasaitasun pixka bat behar dut. Asteburuetan umeekin gehiago egon nahi dut eta libre izango dudaren denbora gozatu, bizitza

sozial gehiago ere egin. Oso lotuta gaude, ez udaran bakarrik, urte guztian.

Gure aitak 42 urterekin utzi zuen elite maila eta orain beterranoetan jarraitzen du, hark pilak bukatzen zaizkion arte!

Aitaren irudia nola ikusi duzue? Presioa izan al da zuentzat?

G: Ez, nirekin dut berarekin batera egin arraunean, patroi bai, baina arraunean ez. Eta arraunean zegoela maisu ere izan da, baina ez presio.

A: Seniorretako nire lehenengo urtean berak ez zuen jadanik egiten, baina deitu zioten eta biok elkarrekin egin genuen estropada bat. Bera beti izan dugu erreferentzia.

Familian izan duzue beste erreferentzia ere.

A: Mikel Orbañanos osaba; Txomin ere bere garaian arraunean ibilia, baina gero



futbolekin hasi zen. Baina azken urteetan oso elkartuta egon gara denok. Familia beti izan da laguntza handia.

G: Familia guztiak babestu gaitu, amaren eta aitaren aldekoek. Aitaren aldekoek, kanpoan bizi direnez, gutxiago jarraitzen dute arrauna, baina egunkariak ikusitakoan esaten digute. Ez dute arrauna hemen bezala bizi, baina bai jarraitu gu gaudelako.

Bestalde, elkarrizketa hau baliatu nahi dugu familiakoak ez ezik gurekin hain ondo portatu den jende hori guztia eskertzeko.

Oriorekin urte oso onak bizi izan zenuztuzten. Zer oroitzapen dituzue?

G: 2000ko eta aurrekoak sekulako urteak izan ziren. Askok ikasi nuen nik hor. Momentuan konturatzen ez nintzen gauzez gerora ohartu naiz. Odola falta nuela esaten zidatenean ez nuen ulertzen eta gero jakin dut zertaz ari ziren. Orain gazteek odol hori falta dutela ikusi dut. Esperientziak, estropadak, entrenamenduek, aldamenekoa agoantatu beharrak eta berak zu agoantatu beharrak ere... horiek guztiak bildu-bildu egin eta odola horrek ematen du.

Entrenamenduetan ikusten dut, gazteetan, beti dagoela alperra eta gehiago entrenatzen duena, eta alperrari beti eskatzen zaio gehiago. Gazteak ahalegina egiten du eta hala ere ondo sentitzen da. Niretzat, ordea, nire adinarekin, entrenamendu guztia behar bezala egin ezean huts egingo banu bezala da.

A: Nik ikusi nuen sekulako ilusioa zegoela orduan. Gehienak eta irabazteko gosea zegoen. Oso koadrila ona elkartu ginen, beteranoak eta gazteak eta oso gauza politak atera ziren.

Urteekin lehiatzen ikasten da. Estropada 20 minutu dira eta 18-19 urterekin, nire lehenengo estropadak, bukatzen ez ziren horietakoak ziren. Aulki mugikorrean, sei minutuko estropadan, helmugara iritsi eta momentuko hori agian trainerua baino gogorragoa izan daiteke, baina 20 minutuko estropada ondo dosifikatzea urteekin ikasten da.



“G: Beste kirol batzuk ere gustatzen zaizkigu eta orain denbora izango dugu. Beti zaintzen egon beharrak neke psikologiko eragiten du eta horrek ere eraman gaitu uztera”

“G: elkarrizketa hau baliatu nahi dugu familiakoak ez ezik gurekin hain ondo portatu den jende hori guztia eskertzeko.”

“A: Urteekin lehiatzen ikasten da. Estropada 20 minutu dira eta 18-19 urterekin, nire lehenengo estropadak, bukatzen ez ziren horietakoak ziren”

“G: Handik Oriora bueltatu eta asko jota ondo zabiltzate bezalakoak entzuten genituen. Norbere herrian kontrola eta komentarioak bestelakoak dira”

“A: Martxan dauden aferen erantzunak orain aterako dira, baina entzuten diren gauzak itsusiak dira”

“A: Orain, Arraunetxe aprobetxatuz ongi ikusiko nuke jendeari arraun egiteko aukera ematea”



Eta, elkarrekin Kontxa irabaztea eskutuan zenutenean, 2001eko deskalabrua.

G: Denborarekin dena ahazten dela esaten da, baina nik denbora asko behar izan dut. Aurten ikusi ditut irudiak, orain arte ikusi gabe neuzkan. Nik gaur egun ez dut errudunik ikusten.

A: Eginda zirudiena azken minutuan joan zen eta hori irenstea ez da erraza. Baina ezin da hor gelditu, mila gauzen artean hori izan zen txarrenetakoa.

2003an Oriola laga eta Hondarribira.

A: Mikel Orbañanos, osaba, aurreko urtetik zegoen han eta hara joatea gogorra izan zen. Hemengo gauza bat edo beste gatik utzi nahi genuen eta Mikelekin egoteko gogo geneukan. Ikusten genuen aldatzeko garaia zela. Berarekin aurrez ibilia nintzen arraunean, baina lau urte ziren elkarrekin arraun egiten ez genuela eta oso harreman estua daukagu, osaba baino gehiago ia anaia da guretzat. Lehenengo urtea zen jendea talde batetik bestera mugitzen hasi zena eta bagenekien herrian zeresana egongo zela. Guretzat ez ezik familiaretzat ere oso gogorra izan zen. Urteekin dena baretu da, gauzak asko ireki dira. Baina erabakia hartzea ez zen oso erraza izan.

G: Kritikak ere egon ziren. Gu Hondarribira joaten ginen, baina ingurukoek entzuten zituzten. Gerora jende gehiago atera da, baita etorri ere eta orduko kritikak itsasoak eramanez dituzte.

Aizperro Oriora bueltatu zenean ezal zenuten pentsatu zuek ere bueltatzea?

G: Ez. Mikelekin gustura geunden eta oso eroso da beste herri batean arraun egitea. Handik Oriora bueltatu eta asko jota ondo zabiltzate bezalakoak entzuten genituen. Norbere herrian kontrola eta komentarioak bestelakoak dira.

Alde handia al dago Oriotik Hondarribira arrauna bizitzeko garaian?

A: Badago zale amorratuen talde bat, entrenamenduak ikustera ere joaten dena. Herria, berriz, arraunzalea izan arren ez diete Orion bezala emaitzei hainbesteko garrantziarik ematen, baina eskertzen dute arraunlariek egindako lana.



Iritsi gara exijentzia maila batera, non badakigun hor aritzeko zer egin behar dugun eta zer ez. Parrandak ez ditugu egingo –gazteagotan beharbada egiten dira bat edo beste eta jendeak jakiten du–. Baina gehienek sekulako ilusioa dute zaintzeko, gauzak ondo egiteko...

G: Arraunlaria oso ondo tratatzen da Hondarribian, klubean eta herrian. Hori errazago erakusten da, herriaren aurrea banderarekin joandakoan bai han eta baita Orion ere. Baina han beharbada ez dago hainbesterako exijentzia mailarik. Baliteke Orion egon garenean guk jarri izana gure buruari: herrian hainbeste ematen badigu guk ere berdin eman nahi diogu bueltan.

Zer behar du arraunlari on batek watioetatik harago?

A: Indarra, erresistentzia eta zorrotza eta diziplinatua izatea entrenamenduetan eta zaintzeko orduan. Arraun egitea ez da egurrari tiraka jardute hutsa, jakin behar da egurra noiz eta nola ari zaren tiraka. Erriotan ere errazagoa da arraun egitea, gero itsasora atera eta beste mugimendu batzuk daude, beraz, gauza asko behar dira arraunean ondo egiteko.

G: Ura, trainerua eta arraunak sentitu behar dira. Aldamenekoari begiratu gabe sentitu eta jakin behar da zer egin duen. Arrauna pixka bat okertuz gero badakizu arrauna edo bestea joango dela eta azpira joanez gero trainerua eroriko egingo dela. Oso zaila da jendeak ulertzea olatu baten atzetik beste bat datorrela. Ikusi ikusten da, baina bat etorri orduko bestea gainean dago eta aurrea hartu behar zaio.

Eta trainerutik kanpo?

A: Beroa izan behar denean beroa eta hotza izatea tokatzen denean hotz izaten jakin behar da.

G: Arraunetik kanpo gaudenean deskonektatu eta taldea ongi eramaten. Ez da erraza, noski, baina Hondarribian azken urteotako sekretua hori izan da. Behera egindakoan altxatzeko talde giro ona ezinbestekoa eta gure arteko harremana oso ona da.

ENTRENATU ESTUTUZ, BAINA ERRESPETUZ

Hasi zirenetik entrenatzaile batzuk izan dituzte Asier eta Gorka Puertasek eta denetik zerbait ikasi dutela diote.

Jose Luis Kortak eman erakutsi zizkien lehen ezagutza gehien: arraunketa, modu diziplinatuan entrenatu behar zela, teknika, ontzian jarri eta arraunean nola egin behar zen... Kortaren ondorengoek ere haren bideetik jarraitu zutela uste dute: *eskola berak ireki zuen. Gerora arraunketa pixka bat aldatu da, traineruak ere aldatu egin dira, zuntzezko arraunak, baina finen eskola hark hasitakoa da. Puertastarren esanetan, aurtien Kortaren ekipoa, Orío eta Hondarribia ikusita arraunketan badaukate antza, bakoitzak bere bakoitzak bere ekipora egokitutako aldaketekin, baina oinarria bera.*

Teknikak teknika entrenatzaile batek psikologo ona izan behar duela dio Gorka Puertasek: *ez burua jateko. Deskonektatu behar dela eta bi arraunlari izatetik bi pertsona izatera pasatu behar dela esateko baizik. Beren ustez beste ezaugarri beharrezko bat da gauzak garbi azaltzea. Baita ekipoiari gauzak ondo eginaraztea eta taldea gestionatzea. Asierren ustez, horretan Mikel Orbañanos da egokia, *ekipoarekin gorabehera askorik gabe lan egiten dakiena. Haserretu behar denean haserretuz, baina gero hitz egin behar bada gauzak ondo esanez. Gorkak dio hitz txarrik ez dela erabili behar: estutu bai, baina errespetua galdu gabe.**

Beraiek entrenatzaile izango liratekeen galdetuta zalantza aurpegia jarri dute, baina argi dute aurtien atsenden hartuko dutela. *Deskonektatu egin nahi dut, baina aurrera begira zeinek daki. Arrauna gure mundua da, urte pila bat eman ditugu honetan eta agian gustatuko litzaidake jendeari, gazteei, erakustea, dio Asierrek.*

Erakusteak asko betetzen duela dio Gorkak eta beharbada horregatik aritzen dira entrenatzaile batzuk luze. Asierrek eta Gorkak denbora badute zer egin pentsatzeko.



Dopin kontuak asko entzun dira azken urteetan. Nola bizi izan duzue hori?

A: Martxan dauden aferen erantzunak orain aterako dira, baina entzuten diren gauzak itsusiak dira. Orain arte erreku-peratzeko ziztatzeak aukera zegoen eta orain dela hiru urtetik hona debekatuta dago. Ezin da orratzik sartu kontrolerako odola ateratzeko edo norbaitek anemia izan eta burdina sartzeko ez bada. Nik esan dezakedana da gure taldean garbi ibili garela eta medikuarekin %100eko konfiantza daukagu.

G: Urtean zehar pixa eta odol kontrolak egiten dizkigute edozein egunetan etorrira; txirrindulariek bezala, pasaporte biologikoa dugu guk ere.

Arraunean lehia baino zaletasun hutszez egiterik balego?

A: Orain, Arraunetxe aprobetxatuz ongi ikusiko nuke jendea arraun egiteko aukera ematea. Hondarribian, batik bat lehen arraunean ibilitako jendea, ibiltzen da zale modura orain. Iolak daude, bazkideek erabiltzeko. Bestalde, jendea pesak, spinninga, aerobika edo soinketa egitera joaten da. Dirua kluba mantentzeko erabiltzen dute. Arraunetxeri horrela atera dakioke beharbada zukua.

G: Lekua ingurukoei ez ezik gehiago ireki daitekeela iruditzen zait. Adibidez, Ingalaterrako taldeak beti Kataluniara edo Sevillara joan beharrean hemen aukera izanez gero baliatu dezakete.

Lehen Orioko kamiseta, Hondarribikoa gero, datorren urtean zer kolore?

G: Uste dut ez dudala kolorerik eramango errespetuz.

A: Beti izango gara Oriokoak eta Hondarribikoak. Bizi izan duguna eta erakutsi duten gurekiko jarrera sekulakoa izan da eta Oriokoak beti gara oriotar.

Zuen alabek arraunean egingo al dute?

A: Ane alabak esaten dit: *10 urte ditudanean aitarekin joango naiz arraunera.*

Baina aukera beraiek egin dezatela.

G: Gurea oraindik txikia da, baina haren amak nahiagoko luke balletera joango balitz arraunera baino, bera txikitzen balleteran ibiltzen baitzen.

Beharra

T railak 30. Bulegoko bizkarreko minak atzean utzi nahi eta lagunarekin korrika egitera joan naiz arratsalde partean. Hasi eta berehala, arnasestu batean harroxko jardun gara berriketan: *earki in dinau, hau egualdia korrika iteko, guk bai jakin*. Aspaldi korrika ez eginak ez du gure animorik zapuztu. Hala ere, barra muturra ikustearekin aurpegiera aldatu zaigu bioi. Hura zen edertasuna, hura inbidia pasatzea. Tuntunpaela pareta sentitu gara, bainu dotore bat hartu beharrean zertan ginen gu izerdi saltsatan sartuta!

Urriak 1. Eskerrak, atzoko giro ederra gaurkoan ere hemen da. Gaur txaparroa jantzi eta iluntzearekin bat itsaso barrura egin dugu lagun koadrilak. Urak oraindik epel daude, eta kanpora ateratzean ere ez dago hotzik. Ospakizun handietako liturgia, negu aurreko azken bainua izango denaren momentua txoixopanplona bokadilo batekin gozatu dugu. Atzoko zorrak ondo kitatu ditugu itsasoarekin.

Pare bat hilabete atzera begira jarri naiz orduan. Oporretatik bueltatu nintzen egunera.

Abuztuak 4. Hiru astez itsasoa ikusi gabe banator etxera bueltan. Txoropito samarra iruditu zait hegazkinean nire alboan paratu didatena. Neska pinpirina, aldean duen mutilarekin hormonaz blai egindako elkarrizketa horietako bat darama. Txoro-haize ugari eta fundamentu eskaseko gaiak hitzetik hortzera. Denok egon gara halakoetan kateatuta noizbait.

Mutil valentziarrak Madrilgo neskari esan dio hondartza gabeko hirian ezin

Txoro-haize ugari eta fundamentu eskaseko gaiak hitzetik hortzera. Denok egon gara halakoetan kateatuta noizbait

duela pertsonak ondo bizi. Behar baino 10 dezibelio gehiagorekin erantzun dio bigarrenak. Urte guztian itsasoa ikusten ez duenez poz handiagoz hartzen duela hondartza. Bere tesi deskalabraturaren arabera Madrilen bizitzea baino aukera hoberik ez da itsasoaz gozatzeko.

Hara hor ezberdintasuna. Kostaldeko ez dugu poza sentitzen, itsasoaren beharra baizik. Nola azaldu *marilehor* honi itsasoa urruti dagoenean sentitzen duzun nahi asebate ezinezkoa? Nola esplikatu urteko azken bainua hartzen dudanean tristura ikaragarria sartzen zaidala. Nola azaldu kostaldekoak ez duela itsasoa alaitzeko. Itsasoa beharrezkoa dugula, alajaina! Ez baita gaitza poza eragiten diguna, adikzioa baizik.

Hala ere, badut esperantzarik. Urriak ekarriko digu beste sartu-irten baterako aukera. Eta orduan ere munduko bokadilorik onena dastatuko dugu eguzkia sartzean.



SU KIA
TABERNA JATELYKA

On agiri eta gero... harri KOPA eta TOPAI!

- OILASKO ERREAK EFAMATEKO
- EGUNEKO MENJIA
- EGUNKARIAK
- OGIA

TF. 943 892 129
ABANDONEN 36, 1 BARRIO

AMAIA ESTANKOAT

Tabakoak
Prensa

Callen 21 - 20810
ORIOA - (20) UZKOKA

Amara Larrinaga
M. 655 722 567 - Exp. 29 003 - Tfnoan: 943 89-12 12

ITSASADARRA, S. L.
Jose Angel Iradi Udabe

aseguru artekaria
finka administratzailea
gestoria
enpresa berriak sortzeko diru laguntzen kudeaketa

Tel 943 89 40 29 Fax 943 83 54 98 itsasadarra@itsasadarra.com
Ibai Ondo 4, behea, 20810 Orio

Orioko Herri Ikastola

Guraso Kooperatiba

ABESLARI KALEA, 8

TEL: 943 83 47 04

FAX: 943 13 09 38

orio@ikastola.net

www.oriokoikastola.net

Zaragueta Herri Eskola Orrio

telefonoa: 943 89 40 52
e-mail: 012137aa@hezakuntza.net

PIZZERIA KALETA

ARRANTZALE KALEA, 10
TELEFONOA: 943 24 89 46

LEUNDA OKINGEDIA

ORDUTEGIA

ETXEGARDA - LEUNDEGIA 7:00 - 20:30
KIDUEKIN 7:00 - 13:30

Tfnoa 943 83 66 67

MANTEROLA S/L
ESFERA ETA RETENTZIOKO BALBULAK

Santiago auzoa - 18 postakutxa
Tel.943 830 743
Fax.943 834 834
E-mail: trimanterola@trimanterola.com
20810 ORIO - GIPUZKOA

Esferako balbula
AENOR kalitate zertifikatua

Oriyokua

Nungua zea? Ni, Oriyokua. Eta ondoren beti erreazioen bat etortzen da, batzutan onerako eta besteetan ez hain onerako, hitzez noizbait edo baita aurpegi ere, baina ezin dira sekula isilik pasa. Hau da marka, hau! Nire buruari hauxe galdetzen diot horrelakoetan: *zergatik?*

Hontaz, *oriyotar* guztiok ohartuko zineten, denoi deitu baitigute noizbait herritik kanpo *Oriyo* edo *Aupa Orio*, gure gurasoek izena jarri zigutenean egokia aukeratu ez balute bezala. Nik dakidala beste herriekin ezta horrelakorik gertatzen: *Hi Usurbil, etorri hai honea... ez dut nik inoiz entzun behintzat.*

Herritik kanpoko nire lehenengo esperientzia hamalau urterekin izan zen. Oriyon ikasketak bukatu eta Donostiara, batxilergoa ikastera joan nintzenean, eta ez nintzen hara joan zen *oriyotar* bakarra. Han konturatu nintzen, lehen aldiz, *oriyotarra* izateak halako grazia berezia sortzen zuela besteengan. Eta zer esanik ez gure hizkerak, haiantzako baserritarrek ginen, *kaxero* batzuk. Oraindik gogoan

Oriyotarguztiok ohartuko zineten, denoi deitu baitigute noizbait herritik kanpo Oriyo edo Aupa Orio, gure gurasoek izena jarri zigutenean egokia aukeratu ez balute bezala. Nik dakidala beste herriekin ezta horrelakorik gertatzen: Hi Usurbil, etorri hai honea... ez dut nik inoiz entzun behintzat.

dut beste lagun *oriyotar* batek nola esan ohi zien: *gu baserritarrek ez, gu arrantzalek!*

Euskarako irakaslearentzat, berriz, idoloak ginen, bera eta bere euskalkiak. Ikaragarri maite zituen gure y-ak, baina belarriko mina sortzen zion *krixton* hitza adjetiboarekin ibiltzen genuenean, eta gu behin ta berriz: *krixton haundiya, krixton txarra, krixton...* Aze bronkak! Baina *oriyotarrak* beti euskaraz, bai autobusean, bai gelan, bai jolas garain... Donostiarrak berriz jolas orduko txirrinak jo bezain azkar pasatzen ziren euskaratik gaztelaniara irakasleen amorraziorako.

Oriyotarroz gain, baziren beste hainbat herrititik joaten zirenak: urnietarrak, hernaniarrak, lasartearrak... Haiek herritarrak ziren *ñoñostiarrentzat*, baina ezin zehatz asmatu zein herritakoak. Gurekin, berriz, etzegoen zalantzarik, kopetean gurutztea izango bage-nu bezala begiratzen gintuzten.

Ondoren, ikasketekin jarraitzeko asmoz, Madrilera joan nintzen eta han ere *la de Orio* nintzen. Baina, nola liteke? Garai hartan bost mila biztanlera iristen ez zen herria zen Orio, baina Espainiako hiriburuan azkar asko ikasi zuten gure herriaren izena.

Handik Donostiara itzuli nintzen, lanera, ikasitakoa praktikan jartzera. Eta han ere, betikoa, katxondeoa alegia. Estropada garaian, Orioko arraunlariek lortutako emaitzak politak baziren, nahikoa lasai egoten zen asuntoa, baina alderantzizkoa bazen... buuuuff, a ze astelehena!

Komunikabideetan ere noiznahi ateratzen da gure herria. Lehen aipatu bezala, estropada garaian zer esanik ez; bixiguaren festa dela eta, txuletarena, Bailearen Eguna... Beti parrandan omen gabiltza!

Oriyoko artistak aipatzean ere beti ipini ohi dute: *Oriyoko artista*, beti present beren jaio-terria. Ezta egongo Euskal herri osoan Benito Lertxundi nongoa den ez dakienik.

Behin batek honela esan zidan nongoa nintzen jakin zuenean, *con la iglesia hemos topau*. Orain lagunok asma ezazue zer esan nahi ote zuen. Auskalo!

#Arrauna

Uda bukatu da, bukatu denez! Eta errepasso egiten hasita, nire honetan, udako *trending topica* -lasai, nik ere ez daukat *firstik* -zein den pentsatzen aritu naiz, alegia, udan puri purian egon diren gaiak erre-pasatzen.

Twitterren idazten den bezela, lagunarteko hizketagai nagusi, *#kontxanpaletanjo-katzen* izan da, dudarikgabe. Kalea gora, kalea behera, denbora ofizialak, helegitea... *en fin*. Aurretik, ordea, beste bat ere egon zen egun batzutan puntaren puntan *#orio-koarraulariarenkeinuitxusia*. Ez ziren gutxi izan alde eta kontrako komentarioak terraza eta soziedadeetan.

Geroztik, pare bat gai aha-legindu dira *trending topica* izaten, baina kale egin dute: *#caietanorio* eta *#helikopteroahondartzan* bidean geratu ziren. Pentsatzen segita, ondo legoke oriotarren ahotan *#amareneskuak* edo-eta *#hiztunpolisa* hizketagai izatea, baina bueno... *en fin*.

Esan didate, azken egune-tan, zaharren babes lekuko twitterlarien artean jo eta fuego dabilela *#marokongalduta*, eta Gaztetxeakoak *#zeinek piztuko duparrillatxiokatz*en dabilzala etengabe

Eta datorren urtean zein izango ote da *trending topica* Orion? *#kmk14orio* igual? *#Karkara25* beharbada? Ala *#orio32*? Seguru behintzat arraunak emango duela zeresana, onerako eta txarrerako.



Azkue
 Tf: 943 13 04 38

edariategia
ANTILLA
jukebox
 Abeslari Kalea, 2 - Tel: 943 83 23 09

Bidali ezazu zure albistea!
ZUZENEAN!!!
karkara.com

KAIUA
 Plater konbinatuak,
 bokatak, hamburgesak...
 ANBARKO PORTUA 35, BEHEA | TE: 943 840 060

Joana Murgiondo
 Aseguri-agenzia
ASEGURUAK
 C C I
 CARASA, CIVIETI, LACORT Y CIA, S.A.
 Abeslari, 4- 2. esk.
 Tfnoa: 943 13 46 07

FISIOTERAPIA Garkoitz Aristegi eta Natalia Wieruszyn
 NUTRIZONISTA Garbife Alzpuru
sinergia investigacion
 fisioterapia
 ibai ondo, 1, behe-oina | ORIO | 943 13 05 77 - 685 71 85 95

Sagasti
 LEIHOAK
 ROBERTO SAGASTI
 Tf / fax: 943 13 00 77
 sagastileihoak@telefonica.net
 Arrantzaile kalea, 65
 20810 Orio (Gipuzkoa)

LURDES
 KREKIDEGIA
 Eusko Gudari, 4 - Tel. 943 83 00 24

uranga
 autozerbitzua
Aliprox
 Eusko Gudari Kalea 13-15
 ORIO
 943 83 38 75

ITZIAR
 kirolak
 Tel. 943 83 31 03

mauka
 PAPERDENDA LIBURUAK ETA OPARIAK
 TELF - 943. 572083
 FAX - 943. 571190
 lasenjo@hotmail.es
 INES ASENJO
 IBAI ONDO 13
 20810 ORIO

Fareko bakailoa daukagu
ITSAS MENDI
gutiziak
 Eusko Gudari, 5 | Tel. 943 24 67 74 | Orio

Lizaso
 dekorazioa
 Eusko Gudari, 48
 Tf: 943 83 07 84 Fax: 943 83 87 16

ardoak, urdaikiak, gaztak,
 kontserbak, janari prestatuak
etxeraino eramaten ditugu
KVKV ARRI
 943 83 09 84 | alta Iertxundi, 36 ORIO

LOBETXU JATETXEK
 Eusko Gudari, 18 | Tel: 943 83 00 07

KOLON TXIKI
 abeslari-zerbitzua
 jakeba.com
 Herriko Euzarantza, 4
 ORIO
 Tel. 943 83 00 44

943 572 870
KOASTA
 Wifi zerbitzua
 Kopak, gau giro aparta...

Katu Moria
 BIRBIRKINAKO KUPLO
 ESTROPALARI, 10
 20810 ORIO
 tel. 943 11 66 99
 LARRIARNAK
 608 67 64 35

Inkesta

Arrantzale kaleko tuneletako lanak

Eusko Gudari eta Arrantzale kaleak lotzen dituzten tuneletako baten berritze lanak bukatu dira. Orain bigarrena falta da txukuntzeko. Bertako dendarien iritziak jaso ditugu.

“Nik ez nukeen lur mota hori jarriko, baina polita dago”

Lurra benetan itsusia da, ez da batiere *sufritua*, garaiz kanpoko. Duela 30 urte Errustan antzerako lurra zegoen, esaterako. Bestela, orokorrean oso gustura gaude. Guztia berritu

da, paretak konpondu eta txukun geratu da tokia. Politu dago.

Baina lurra garbi mantentzea asko kostatuko zaigu, lehen egunetik ez baita zuria zuri mantentzen. Eta horrek buruhausteak emango ditu garbiketa dela eta. Hori bai, nik ez nukeen lur hori jarriko.

Lurra porotsua da eta ez zait egokia iruditzen hainbeste jenderentzat pasatera den tokirako. Umeak, txikleak, tabernako zerbeza eta ardoak... horrek guz-

tiak lurra txukun edukitzeari zailtasunak ekarriko dizkio, orain arte ikusi dugunagatik behinik behin.

Beatriz Alberdi

Dendaria

“Pena da hain denbora gutxian lurra horrela izatea”

Tokia askoz ere txukunago dago, dotore, baina orain mantentzea ikusi beharko da. Erratza, pala eta fregonarekin ezin da garbitu. Ez dakit Arkuperi edo Udalari, nori dagokion,

baina baten batek eman beharko digu erantzunen bat. Badakigu zerbaitetan ari direla, baina...

Pena da lurra horrela edukitzea hila-bete eta erdi baino ez daramanean zabalik. 46 urtean guk garbitu dugu tunela eta orain, lurra garbitzea ezinezkoa bihurtu zaigu. Ez dakigu nork aukeratu duen lurra, baina norbaiten erantzukizuna bada.

Oso lan ona izan da, berriro diogu, baina hau mantendu egin behar da, ez da

nahikoa lana txukun egin eta mantentze lanez ez gogoratzea. Nik izan genituen bileratan lur honi ezezkoa eman nion baina bestelakoa izan da emaitza.

Eta orain bigarren tunela falta da, han ere zerbait egingo dute. Hori bai, lurra gauza batean badu abantaila, oraindik ez da inor labaindu. Dena dela hori denborak erakutsiko digu.

Jone Gozategi

Tabernaria

“Txukun dago eta horrek bezeroak erakarri ditzake”

Emaitzarekin pozik nago eta guztia bukatzen denean izugarria izango da. Itxura eskasa izatetik ederra eta abangoardista edukitzera pasada. Horrek herriari asko lagunduko dio.

Antillan esaterako, tokia txukundu dutenetik, eguerditan erromes gehiago izaten dituzte bazkaritan. Lehen zikin-keria tartean zegoen eta orain, behintzat, txukunduta dago. Horrela egon beharko luke herri guztiak.

Egindako lanarekin oso pozik geratu naiz eta dendari hobekuntza egingo dio. Bezeroek guztiari erreparatzen diote. Herria zikina badago, ideia negatiboa izaten du bezeroak eta txukun badago positiboa. Horrek askotan bezeroak era-

karri edo kendu egiten dizkigu.

Orain garbi mantendu behar dugu guztion artean, izan ere lurra garbitasun berezia eskatzen du. Ea nola konpontzen garen bertakoak eta Udala guztia dotore mantentzeko.

Cristina Salsamendi

Dendaria

“Besteei bezala, jarri duten lurra kezkatzen gaitu”

Gaboneko tunela ikusita izugarri gustatu zait izan duen emaitza. Baina begiradari dagokion emaitza. Hau da, dotore dago, argitsu dago eta aurreko itxura gogoratzen badugu, alda-

ketak asko hobetzen du tokia.

Baina orain lurra da kezkatzen gaituena. Gure tunelean ere lur-zoru bera jarri behar dute eta erratzarekin eta gure fregonarekin pasatzea ez dela nahikoa ikusi dugu beste tunelean. Horri norbaitek eman beharko dio irtenbidea.

Dena dela, nik beste gauza bat ere aldatuko nuke. Ez zait gustatzen nola geratu den pasabide erdiko baranda. Erdi-erdian dago jarrita eta paretaren kontra bakarrik jarrita nahikoa dela uste dut.

Ea lanak ahalik eta azkarren bukatzen dituzten. Bigarren tunela pixaz josita egon da orain artean eta itxura berritukoan halakorik ez dela egongo pentsatzen dut. Ez usainik, ez zikinkeriarik. Ea garbitzeko nola moldatzen garen. Guk zati bat garbituko dugu, jakina, baina gainerakoa ea nork garbitzen duen. Bizilagunek? Udalak?

Pili Vergara

Dendaria

Bakarrizketa komikoa krisia bezalako gai larriren islada

Kritika Antzerkia

Izenburua: Aktibo toxikoa.
Aktorea: Patxi Santamaria.
Zuzendaria: Inaxio Tolosa.
Tokia: Orioko Kultur Etxea.

Aretora sartu eta eszenatokia beltza. Panorama ere antzera, iluna. Aktore bakarra, Patxi Santamaria, egongo zela banekien, baina ikusleak hain gutxi izango zirenik? Krisia zen ikuskizunaren ardatz eta badirudi antzerkera ere krisia heldu dela, bai gutxienez publikora.

Krisiak harrapatutako gizon bat irudikatzen zuen Santamariak bere bakarrizketan. Etxea galdu eta kalean dagoen gizona. Baina ez zegoen geldirik egoteko eta jendaurrera ingurukoak aktibo bihurtzeraz ateratzen. Horretarako publikotik eszenatikira eraman zuen jendea lagun eta herritarren barre txikiak eraginez; kafea zerbitzatu ziona, banku lapurretan lagundu ziotenak...

Mimoa, dantza, kantua eta jolasak, satira eta komediarekin uztartu eta guztia baliatu zuen krisiari barre egin eta umorez mamu hori gainditzeko. Publikoa koloretako pilotekin jolasean jarri zuen une batez, baina une hura barrerako ez ezik ikusleek krisiak eragindako amorrua kaleratzeko ere baliatu zuen, bere oihuak hainbat tartetan erabili zituen bezala.



Pilotekin jolasean jarri zituen ikusleak amorrua askatuz. KARKARA

Bakarrizketa komikoa zen antzezlan, baina bukaeran taldea ere osatu zuen aktoreak. Kopagorik ez, etxe kalertzerik ez, errekorterik ez edo bankuak lapurrak kartelak banatu eta manifestazioa egitera eraman zituen ikusleak Kultur Etxe aurrera. Han bukatu zen antzezlan eta jendea ezustean hartu zuen, jarraitu egingo zuela zirudien-eta.

Krisia bezalako gai astun edo serioari ukitu arina eman nahi izan zion Santamariak eta funtsa, esaldi sakonak, airean pasatu ziren beharbada. *Bizitza ez da teatroa, bizitza bizitza da* esan zuen bakarrizketan eta bizitzako gau batean barretxo batzuk ateratzea ez da inoren kalterako.

IRATI AGIRREAZALDEGI

Ikusleak idazle
Iker Urdangarin

Gaztelekua

Hainbat eta hainbat ordu pasatzen ditut Gaztelekuan jolasean, ekintzak egiten... Hilero-hilero, programazio anitza lantzen dugu, hainbat modutan. Bertan, adin ugariako gazte asko elkartzen gara eta hau oso aberasgarria iruditzen zait, jende berria ezagutzen dugulako, hainbat momentu partekatuz, bertako materiala elkarbanatuz eta errespetatuz.



Hala ere, Gaztelekuan bada hobe bidezko alderdi bat. Esan bezala, egun batzuetan jende asko el-

kartzten gara eta iskanbila handia sortzeaz gain, mahaiak ere okupatuta egoten dira. Beraz, pixka bat handitzea komenigarria litzateke, horrela, guztiok leku gehiago izateko.

Azkenik, esan beharra dut, guk azken urtea dugula han eta oso oroitzapen onak ditudala Gaztelekuan pasatutakoak. Beraz, gaztetxoak animatzen ditut gaztelekura joatera, momentu ezin hobeak izan nahi badituzte, nik ditudan bezalakoak.

Gaztelekua pixka bat handitzea komenigarria litzateke, horrela, guztiok leku gehiago izateko

izarra
GIZON MODA

Balea, 1 tel. 943 13 39 30 ORIO
www.izarra.com

KAXAIO
PLADURRA ETA IGELTSUA

Konponketa eta berrikuntza lanak
pladurra eta igeltsuarekin

4josemaria@gmail.com
656 777 574

IGLESIAS
SARRAILAGILEAK

www.IGLESIASCERRAJEROS.COM

Javier Iglesias Fernández
637 723 308
iglesiascerra@yaho.es
2010 ORIO

HAIZE BERRI

Plater kombinatuak,
bekatak,
hamburgerak,
razioak,
eguzko menua...

eta etxera eramateko zerbitzua!

» INKESTA

Nola zuen abizena kanpotik etorri eta aliron kantuaren hitzak asmatu zituenak?

Erantzun zuzena **Marin** da eta erantzun dutenen artean **10**ek asmatu dute.



HURRENGO GALDERA

Zer nerurri erabiltzen dute saregileek, sareak eta neurtzeko?

Erantzun ezazu www.karkara.com webgunean eta emailtza 344. Karkaran argataratuko dugu.

» OSPAKIZUNA



60 urte ospatzeko modukoak

Urtemuga polita eta ospatu beharrekoa, 60 urte bete baitituzte aurten. Hala egin zuten, hain zuzen ere, 1953an jaiotako gizon-emakume oriotarrek. Iluntzean, meza izan zuten hildako beren adinekoen omenez eta gero denak elkartu eta afaltzera joan ziren Loretxu jatetxera. Umorez egon ziren mahaiaren bueltan eta izan zen afalostea luzatu zuenik. Aurrerantzean ere elkartzen jarraitzeko gogoia ere erakutsi zuten.

» ZORIONAK!

Gipuzkoako Aldundiari

Herriarrei hitza ematea beti da aberasgarria politikarientzat. Kasu honetan garraio publikoari buruzko haien iritzia jaso nahi dute Aldundikoek eta herritarren parte hartzea bultzatu dute zerbitzua hobetzeko bidean..

Baina ez hori bakarrik, garraio publikoa sustatzea bera ere oso positiboa da. Autoa erabili ordez zerbitzu publikoak eskuragarriago izaten baditugu, gehiago erabiltzeko joera sortu daiteke-eta.

Hori bai, parte hartzea eta herritarrei hitza ematea ongi dago, baina gero benetan kontuan hartzekotan. Ea oraingo honetan herritarren parte hartzea handia den eta Aldundiak herriaren hitza kontuan hartzen duen.

Arrendi Gain 1 - 5. Lekuak - 28.809 Auz
TEL. 943 84 82 13

kix
kax

estetika
Fotorepeticioa
capilare kanchobela

ileapaindegia

Gabon
TABERNA
plater kantzina pintxoak

Tfnor: 943 83 06 09

Nahikari

HAUR DENDA

Arantzale Kalea, 35
28100 - Oriu
Tél. 943 83 36 30
www.nahikari.es

RAMIRO
argazkiak

www.fotoramiro.com
fotoramiro@fotoramiro.com

610 69 76 68
943 83 10 48

KIROMASAJISTA
etxeko zerbitzua

- Masaje terapeutikoa
- Masaje erlaxagarria
- Kirol masajea
- Zirkulazioa hobetzeko masajea
- Estresaren aurkako masajea

Tf.: 676 198 904



Zarauzko haur milizietako kideak gezurrezko fusilak hartuta desfilatzen Munoako plazan. RENOKO UNIBERTSITATEA

Orioko Gainekeo tankea

Oroimenaren kutxa

Lehen, Orioko eskola bukatuta, umeak baxilerra egitera Zarautza joaten ziren ezinbestean. Gu Zarauzko Antonianotan hasi ginen, haien ikastetxean. Bi aldiz egiten genuen egunero etxetik eskolarako joan-etorria. Ederki ikasia daukat nik Orio eta Zarautz arteko bidea. Zarautza eramaten gintuen autobusari *El cherri* deitzen genion, -orduan eskoletan dena erderaz egiten zen-. Frai Andres gizon zintzo eta pazientzia handikoak gidatzen zuen gerrako autobusa. Yankiek Koreako gerrarako

egindako autobus haietako bat baitzen hura. Geroztik, ikusi izan ditut hura bezalako autobusak gerrako pelikuletan. Aurrealdean zerri itxura edo zeukalako deitzen genion *El cherri*. Autobus hartan ibilitako oriotarrek ez dute ahaztua izango. Seguru.

Gogoan ote dute tankea ere? Zarautzerako bidean, behin Orioko Gaina hartu eta beherantz abiatu orduko, ezker aldean, orain mahasti bat dagoen horretan, tanke bat zegoen. Bai, gerrako tanke bat, 1936ko gerran han geratutako bat. Ba, tankea zegoen lekutik oso gertu zegoen etxe batean Ventastarrak bizi ziren. Etxe hartako haurrak tanke hura zuten jostailu, tanke haren gainean eta ba-

rruan jostatzen zuten.

Behin, hango mutilak, Juan Antonio Ventasek, tankeetik gertu zerbait topatu zuen lurrian, erdi lurperatuta. Mailu batekin hari jo eta jo ari zen umea, harik eta zaratak aita erakarri zuen arte.

-Baina zer habil, Juan Antonio? -eta.

-Hemen burdin puska bat dago, aita.

Burdinazko jostailu hura bonba bat zen, lehegailu bat, gerra garaitik han, erdi ezkutu, geratutako bonba, artean lehertu gabea. Zorionez, ez zen ezertxarrik gertatu. Aitak goardia zibilei deitu eta haiek eraman zuten bonba hura.

IÑAKI ITURAIN

» JAIOTAKOAK

- Vega Pastor Arruti, Orion, irailaren 17an.
- Eñaut Amenabar Solabarrieta, Orion, irailaren 11n.
- Adur Agirre Alonso, Orion, irailaren 4an.

» EZKONDUTAKOAK

- Fernando Marti Torrecillas eta Ines Zinkunegi Irure, Orion, urriaren 3an.
- Maria Angeles Romero Ruiz eta Daniel Mateo Moreno, Orion, irailaren 28an.
- Pedro Jesus Ndongo Nfumu eta Maribel Malonga Nsuga, Orion, irailaren 26an.
- Erica Martin Perez eta Raul Lopez Sanchez, Orion, irailaren 21ean.
- Josu Perona Lertxundi eta Enara Tapia Loitegi, Orion, irailaren 14an.
- Maria Nieves Bravo Becerra eta Francisco Javier Sanchez Rubio, Orion, irailaren 14an.
- Andres El Kadi Ajahiou eta Judith Gonzalez Elizondo, Orion, irailaren 7an.
- Aloña Zubeldia Arruti eta Aurelio Gallego Cano, Orion, abuztuaren 24an.

» HILDAKOAK

- Manuela Rezabal Illarriamendi, Aian, urriaren 7an, 90 urte.
- Joakin Korta Emazabel, Orion, urriaren 4an, 92 urte.
- Josefa Antonia Uria Garmendia, Orion, urriaren 2an, 85 urte.
- Gabriel Manterola Huegun, Aian, irailaren 27an, 77 urte.

GARMENDIA
 INMOBILIARIA - AHOKULARITZA - ASEGURUAK
 Ibai Ondo, 1
 Tel.: 943 834 466 - Fax: 943 132 941

Carmen eta Txomin
 ARRAZDEGIAR

 943 83 05 37 / 943 83 27 47

Kinkladenda - Ume arropa

 www.lasonet.com/argine
 Tel. 943 13 48 89
 25eko DESKONTUA FAMILIA
 UGARJEN TXARTELAREKIN

ARISTERRAZU
 jatebxea

 Andatza auzoa AIA
 Tel. 943 83 45 21

“Mugen barruan, baina sarkastiko edo ironikoki kantatzen dugu”

Iñaki Gurrutxaga

Bi Bala taldeko kidea

Bertso musikatuak, baina ez ohiko formatuan. Taldearen izenari kasu eginez tiroen pare botatzen dituzte bertso jarriak egurra emanaz eta tonu punkiangoan. Iñaki Gurrutxaga, Aitzol Barandiaran, Julen Goikoetxea eta Xabier Etxeberría dira taldekideak.

IRATIAGIRREAZALDEGI

Bertso Egunerako Iñaki Gurrutxagak eta Aitzol Barandiaranek bertso emanaldia prestatu zuten Beatlesen doinuekin eta bertso tara ekarrita oso ohikoa ez zen Iñakiren gitarra jotzeko estilo rockeroarekin. Han hasi eta bukatuko zutela pentsatu arren, hainbat herritan saio hura egiteko deitu zieten eta Bi bala taldea sortuta kontzertuak eskainiz dabilta.

Bi bala bertso musikatu tarako ala kontzertu tarako taldea al da?

Gurea polita ateratzeko musika talde formatua eman behar genion hasieratik eta ahotsari eta nire gitarrari laguntzeko Julen Goikoetxea bateria joleari deitu genion. Gero baxua ere sartu genuen; Alegiako lagun bat hango kontzertuan aritu zen eta azken saioetan Xabier

Etxeberría baxu-jotzailea ari da. Aurrerantzean laukote izango gara. Gero eta garbiago daukagu kontzertu erako emanaldiak izango direla ez kultur etxe batean arratsaldeko bostetan egiteko saioak. Orioko saioan, Errustan, jendea lurrean eserita zegoen bertso saio bat entzuteko zain, baina gero piztea lortu genuen.

Bertsoak oinarrian, baina nolako doinue tan abesten duzue?

Bertso musikatuetan oso soinu akustikoak egin izan dira beti, garbiak: gitarra, biolina, saxofoia... Gurea punkiangoa da. Gitarra da oinarria, baina bateriak erritmoa markatzen du. Hala ere, denetariko doinuek abesten ditugu.

Saio bakoitza ezberdina al da?

Bertso sorta finko ez gain tokira egokituz propio sortutakoak kantatzen ditugu eta tokia kontuan hartzen da doinuek

aukeratzeko ere. Markinako kontzertuan lehenengo jo genuen La Pollaren kantua normalean azkena jotzen dugu, dena oso goian dagoenean, baina gazte txean zen eta Bertso Eskolen eguna izanik jende gazte asko egun osoz parrandan zebilen, beraz, goitik hastea erabaki genuen eta erritmo dantzarriagoak egin genituen. Gero, Xabier Leteren kanta baten bertso elektrikoarekin bukatu genuen. Gure bizitzaren soinu bاندako kantu asko aurkituko dituzte kontzertuetara joaten direnek.

“Bertso musikatu etan oso soinu akustikoak egin izan dira beti, garbiak: gitarra, biolina, saxofoia... Gurea punkiangoa da”

“Gure kontraesanei kantatzen diegu guregandik hasita eta gure buruari egurra ematen diogun momentutik lizentzia hartu dugu denei emateko”

Nolako gaiei kantatzen diezue?

Denetarikoei. Bertso saio batean politikoki zuzenak izatera jotzen dugu askotan, baina kontzertu hauetan gaia bera tratatzeko tonua da ezberdina. Taldearen izenak erakusten du egurra ematera gatzela; gure kontraesanei kantatzen diegu guregandik hasita eta gure buruari egurra ematen diogun momentutik lizentzia hartu dugu denei emateko. Muga batzuen barruan, baina beti ere modu sarkastiko edo ironikoan.

Euskadi Irratiko Hiru Erregeen Mahaia saio ko futbol sintonia ere egin duzue.

Aitzolek Euskadi Irratian dihardu eta saio ko sintonia egiteko eskatu zioten, baita nahi genuena esateko aukera eman ere, beraz, tentagarria izan zen. *Futboleroek* entzungo duten programan futbolak mugitzen dituen txorakeria horiek aipatu ditugu eta jendea gustatu zaiola dirudi, lehengoan goizeko bostetako *Asko gara* saioan eskatu zuten.

Datozen kontzertuak prest al dituzue?

Sei kontzertu aurreikusita ditugu. Donostian Egian joko dugu eta Donostiara egokitutako hainbat ideia baditugu; Oñatin joko dugun tokia ere ezagutzen dugu eta horrek asko esan nahi du; Berastegin gatzetxearen urteurrenean izango da eta horrek joko a emango digu.



DANBOLIN

» AGENDA



Helduentzako dantza saioak

Talai Mendi helduen dantza taldeak abian jarri ditu aurten ere dantza saioak. Asteazkenetan, 21:00etan elkartuko dira Kosta tailerrean fandango, arin-arin, mutxikoak, Larrain dantza eta beste hainbat dantza egiten ikasteko asmoz. Euskal dantzetan aritzeko gogoia duten 18 urtetik gorako edozeini dei egin nahi diete entsegu horietan parte hartzeko eta herrira dantza giroa zabaltzeko.

Orio

Kirola

■ Urriaren 13an, 3x3 txapelketa, 17:00etan, Ametsa gaztelekuan.

Traste zaharrak

■ Urriaren 16an, traste zaharren bilketa, ohiko zabor ontzien ondoan. Atera aurretik udaletxera deitu behar da zer bota behar duzuen jakinarazteko. Tf.: 943 830 346.

Kontzertuak

■ Urriaren 17an, Mikel Markez eta Eñaut Elorrietaren, *Baga, biga, higa* hitzaldi-kontzertua, euskal musikaren historiaren gaineko begirada, 19:00etan, Kultur Etxean.

■ Urriaren 18an, The Lookers taldearen kontzertua, 22:00etan, Kalakari tabernan.

Irteerak

■ Urriaren 19an, 16:30ean, Kayak Oriabaian. Iraupena: 2 ordu. Prezioa: 12tik 16 urtera, 8 euro; gainontzekoak, 15 euro. Uretarako arropa aproposa eraman. Ezinbestekoa da igeri egiten jakitea. Arrau-near trebetasuna izatea ez da beharrezkoa. Izen ematea: Turismo bulegoan. -943 835 565-.

■ Urriaren 28an, Gernikara egunpasa jubilatuentzat. Azoka bisitatu eta bazkaria Mundakako Casinoan. Prezioa: 35 euro. Izen ematea: urriaren 15ean, 16:00etatik 18:00etara, Jubilatuen Elkartearen.

Bingo

■ Urriaren 22tik 29ra bitartean, 16:30etik 18:30era, Jubilatuen Elkarteak antolatuta, Kultur Etxean.

Erakusketa

■ Urriaren 22tik 29ra bitartean, euskal kostaldeari buruzko *Azterkosta 13* erakusketa, 10:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara, Kultur etxean.

Mahaingurua

■ Urriaren 24an, *Hizkuntza minorizatuak biziberritzeko prozesuak. Garabide elkartearen esperientzia* mahaingurua. Hiizlariak: 19:00etan, Salatxo aretoan.

Aia

Podologoa

■ Urriaren 26an, podologoaren kontsulta, sendagilearen etxean. Aurrez ordua hartzeko: 943 131 144.

Ibilaldia

■ Urriaren 25ean, *Egurrezko erraldoiak; bioaniztasun kimuak*. Zarautz eta Aia inguruko baso-burdingintza eta baso-untzigintzari buruzko ibilaldi gidatua Iturrarango haritz-motzak eta Bizkarko pago-motzak ikusiz eta bideo emanaldia. Hizlaria: Alvaro Ruano Aragon EHUko irakasle eta Euskal Herriko basogintzaren historian aditua. Prezioa: Helduak 5 euro eta 5-12 urte arteko umeak 3 euro. Gehienez 50 pertsonako taldea. 10:00etatik 13:00etara, Iturrarango Parketxetik abiatuta.

Atzeko azala:

1996ko apirilean, Oriotarrez osatutako bi hirikote ETBko Txiskola saioko bigarren edizioko finalera iritsi ziren. Argazkian goitik hasita: Xabier Domingez, Asier Gozategi, Xabier Sukia, Jon Abaurrea, Ibai Esoain eta Altor.



ORIOLE

K
B
S

AITOR

FIRU

LEON

AITOR